

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

- 12131** *11/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 31koa, Langileekiko pentsio-konpromisoak babestearen, kapital-zuriketa eragoztearen eta hirugarren herrialdeetako herritarren sarrera- eta bizileku-eskakizunen arloko zuzentarauen transposizioa egiteko dena eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzen duena.*

I

Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa epeen barruan egitea da Europar Kontseiluak ezarritako lehentasun nagusietako bat gaur egun. Europako Batzordeak txostenak igortzen dizkio aldizka Lehiakortasun Kontseiluari azter ditzan. Txosten horiei balio politiko handia ematen zaie, estatu kideek barne-merkatua martxan jartzeko garaian duten eraginkortasuna eta sinesgarritasuna neurtzeko balio baitute.

Helburu hori lortzeko, gaur egun, are lehentasun handiagoa du, Lisboako Tratatuak diseinatutako jokalekua dela eta. Tratatu horrek Europar Batasuneko Tratatu eta Europako Erkidegoa Eratzekoa aldatzen ditu, transposizioak epeen barruan ez betetzeari dagokionez; kasu horietan, Batzordeak zigor ekonomiko handiak jartzeko eska diezaiokie Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari, eta, gainera, zigor horiek azkar jartzeko (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu –EBFT–, 260.3 artikulua).

Espainiak tinko bete ditu ezarritako epeetan egin beharreko transposizio-helburuak, haiek ezarri zirenetik. Hala ere, zenbait zuzentarauren transposizioa atzeratzen ari da, zeinek lege mailako arau bat behar baitute barne-ordenamendu juridikoan sartzeko, eta isuna jasotzeko arriskua dago, EBFTren 260.3 artikuluan zehaztutakoarekin bat.

Zuzentarau horiek Espainiako ordenamendu juridikoan sar daitezzen gehiago atzeratzeak ondorio larriak izan ditzakeela ikusita, beharrezkoa da transposizio hori egiteko errege lege-dekretu bat onartzea; horrek, izan ere, aukera emango du Europako Batzordeak irekiak dituen arau-hauste prozedurak itxi ahal izateko.

Azkenik, «ez-betetzeen ondorioz Espainiako Erresumaren kontra dauden prozedurei» dagokienez, kontuan hartu behar da Batzordeak ikuspegi-aldaketa bat iragarri duela 2016ko abenduaren 13ko Komunikazioan («EBren Zuzenbidea: emaitza hobekiak aplikazio hobeari esker») eta horren arabera oroharreko isuna sistematikoki eskatuko dela, nahiz eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 260.3 artikulua arabera isuna eskatzea hautazkoa den. Oroharreko isuna ezartzearen aldeko ikuspegiak ondorio logiko hau dakar: arau-haustearengatik prozeduran zehar estatu kideak zuzentarauren transposizioa eginez arau-haustea zuzentzen badu ere, Batzordeak jada ez dio bere aukerari uko egingo eta ez du atzera egingo arrazoi horrengatik bakarrik.

Xedapen iragankor gisa, Batzordeak adierazi du ez duela jardunbide berri hori aplikatuko prozedurako epatze-gutuna komunikazio hori Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehenagokoa den kasuetan. Komunikazioa 2017ko urtarrilaren 19an argitaratu zen. Ondorioz, aparteko eta presako beharrezko dago demanda Justizia Auzitegian formalizatu baino lehen egiteko transposizioa. Bestela, gerta liteke prozedura judicial bat egotea eta haren amaierako epaiak deklaratzeko Espainiako Erresumak ez dituela bete Europar Batasuneko Zuzenbidearen arabera dagozkion betebeharrak.

Errege lege-dekretua transposizio-tresna gisa erabiltzeari dagokionez, esan beharra dago, Konstituzio Auzitegiak urtarrilaren 21eko 23/1993 epaian ezarritakoaren arabera, errege lege-dekretua egoera ekonomiko zailei aurre egiteko legezko tresna dela eta hala dagoela jasota Konstituzioan; horrez gain, urtarrilaren 13ko 1/2012 epaian, Konstituzio Auzitegiak berresten du Konstituzioaren 86.1 artikuluan adierazitako aparteko eta presazko beharrezkoaren kasua betetzen dela «transposizioaren atzerapen nabarmena» gertatzen

denean eta «Espainiako Erresumaren aurkako ez-betetze prozedurak» daudenean. Zioen azalpen honen ondoz ondoko zenbakietan zehazten joango dira errege lege-dekretu honetan jasotako kasuetako bakoitzean zuzentarauen transposizioa egiteko aparteko eta presazko beharizanaren kasua justifikatzen duten arrazoiak.

## II

I. tituluak, zeinak lehenengo artikulua hartzen baitu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 2014/50/EB zuzentarauaren transposizioetik datozen aldaketak biltzen ditu. Zuzentaru horrek gutxieneko baldintzak ezartzen ditu langileek estatu kideen artean mugitzeko duten askatasuna areagotzeko pentsio-eskubide osagarriak hobeto eskuratuz eta hobeto atxikiz.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 45. artikuluan oinarrituz –bertan langileen zirkulazio-askatasuna ezartzen baita–, estatu kideen artean langileak mugitzeko zenbait oztopo gutxitu nahi ditu 2014ko apirilaren 16ko 2014/50/EB Zuzentaruak: lan-harreman bati lotuta dauden erretiro-pentsioaren araubide osagarri buruzko zenbait arauk sortutako oztopoak. Xede horrekin, zuzentaruak pentsio-araubide osagarri horietan eskatzen diren itxaronaldiak eta eskubideak eskuratzeko aldiak mugatzen ditu; muga bat ezartzen du kasuan kasuko eskubideak eskuratzeko gutxieneko adinari dagokionez; eskubideak eskuratu aurretik lan-harremana amaitu arren ordaindutako prima edo egindako ekarpenen itzulketa arautzen du; ezartzen du eskuratutako eskubideei eutsi egingo zaiela lan-harremana amaitzen denean; eta langileei informazioa emateko betebeharrak ezartzen ditu, honako hauei buruz: eskuratzeko baldintzak, eskuratutako eskubideen zenbatekoa eta lan-harremana amaitzen denetik eskubide horiei emango zaien tratamendua.

Espainiako ordenamenduan 2014ko apirilaren 16ko 2014/50/EB Zuzentaruaren transposizioa egiteko, lehen xedapen gehigarria aldatu behar da Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginean, zeina azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaz onartu baitzen. Xedapen gehigarri horrek ezartzen du aseguru kolektiboen eta enplegurako pentsio-planen bitartez eratu behar direla enpresek langileekin hartutako pentsio-konpromisoak, kontingentzia jakin batzuekin –adibidez, erretiroarekin– lotutakoak, eta, aldi berean, xede horretarako onargarri diren aseguruaren oinarritzko baldintzak ezartzen ditu. Aseguru kolektiboen kasuan –modalitate horretan, enpresak ordaindutako primak ez zaizkie egozten zergen ikuspuntutik langileei–, gaur egun, hitzarmen kolektiboen edo pentsio-konpromisoak ezartzen dituzten pareko xedapenen baitan daude lan-harremana amaituta eskubideak eskuratzeko eta mantentzeko baldintzak.

I. tituluak Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzen du, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaz onetsia eta arestian aipatua; zehazki, aipatutako lehen xedapen gehigarria aldatzen du, hartan Europako arauaren aurreikuspenak ezartzeko adin-baldintzak, itxaronaldiak eta eskubideak eskuratzeko aldiak mugatzeari dagokionez, eskuratutako eskubideei lan-harremanak amaituta ere eusteari dagokionez eta langileei alderdi horiei buruz informazioa emateko betebeharrak dagokienez.

Esan bezala 2014ko apirilaren 16ko 2014/50/EB Zuzentaruak lan-harremana amaitu eta beste estatu kide batzuetara joaten diren langileei aplikatzekoa den arren, haren aplikazioa langile guztiei zabaltzeko hautua egin da Espainiako legeriarako transposizioa egitean, zuzentaruaren beraren 6. kontuan hartuzkoan emandako aukera baliatuta; izan ere, horren arabera, estatu kideek aplikazio-eremua zabaldu eta estatu kide beraren barruan tokiz aldatzen diren langileak ere sartu ahal dituzte arauaren barruan.

Aipatutako zuzentaruaren transposizioa araubide hauek erregulatzen dituzten arauak sartuta burutzen da: erretiratu aurretik lan-harremana amaitzen zaien langileak informatzeko araubidea eta eskuratutako eskubideak amaiera horren ondoren etorkizunean tratatzeko-araubidea.

Azkenik, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategin horretan, zeina azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen, bi xedapen iragankor gehitzen dira: bederatzigarrena eta hamargarrena. Bederatzigarren xedapen iragankorrean, eskubideak eskuratuz gero eta erretiroaz beste arrazoi batengatik lan-

harremana amaituz gero eskubideetan izango den gutxieneko zenbatekoa arautzen da, kontuan hartuz ezen, zuzentarauaren 2.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, soilik 2018ko maiatzaren 21etik aurrerako enplegu-aldiei aplikatuko zaiela xedapen iragankor hori (zuzentarauaren transposizioa egiteko muga-eguna da 2018ko maiatzaren 21a); halaber, aurreikusten du ezen, transposizioaren xede den zuzentarauaren 2.2.a) artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2014ko maiatzaren 20an (zuzentaraua indarrean sartu zen eguna) langile berriak jasotzeari utzi dioten eta langile berriei itxita dauden pentsio-konpromisoen kasuan, eskubideak eskuratzeko ezarrita zeukatzen araubidea aplikatuko dela; azkenik, epe batzuk ezartzen dizkie aseguru-entitateei eta pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateei beren prozedurak egokitu ditzaten informazio-betebehar berriak betetzeko, bai eta, hala badagokie, eduki jakin batzuk berariaz jasotzeko ere aseguru kontratuetan eta pentsio-planetako zehaztapen eta oinarri teknikoetan, baina horrek ez du eragotziko Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren beraren lehen xedapen gehigarrian –alegia, errege lege-dekretu honek berridatzitako lehen xedapen gehigarrian–ezarritako eskubideak benetan aplikatzea. Hamargarren xedapen iragankorrak ezartzen du errege lege-dekretu honetan sartutako aldaketen aplikazioak ezin izango duela berekin ekarri ez aurrez eskuratutako eskubideak gutxitzea, ez informaziorako eskubidea murriztea, ez eta bera indarrean sartu aurretik xedatutakoak baino eskuratzeko baldintza okerragoak ezartzea ere.

Transposizioa egiteko epea muga-egunera iritsi izana da 2014/50/EB Zuzentarauaren transposizioa errege lege-dekretu honen bidez egiteko arrazoia, zeren eta, zuzentarauaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, estatu kideek beranduenez 2018ko maiatzaren 21ean onetsi behar baitituzte behar diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak zuzentarauak ezarritakoa betetzeko, edo bermatu beharko baitute mintzaide sozialek beranduenez egun horretarako sartuko dituztela behar diren xedapenak hitzarmen bidez. Gure ustez araugintzaren hautabidea eraginkorragoa denez transposizio-betebeharra betetzeko eta segurtasun handiagoa ematen duenez, egokitzat jotzen da lege-mailako arau bat ematea, zeren eta, transposizioaren ondorioz, eskubideak sortzen baitira langileentzat eta betebeharrak enpresentzat; orobat, aseguru-entitateentzat ere betebeharrak sortzen dira, erretiroari dagozkion pentsio-konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboetan.

2014/50/EB Zuzentarauak aurreikusten du 2018ko maiatzaren 21etik aurrera lan-harremana erretiroa hartu baino lehen amaitzen duten langileen alde hartutako pentsio-eskubideak aitortzea; egun hori da transposiziorako muga-eguna. 2018ko maiatzaren 21ean legezko aitorten hori ez edukitzeak zalantzazko eta segurtasun-gabezia juridikoko egoera eragiten du, eta horrek arrisku larrian jartzen ditu langileen eskubideak, haien lan-aukerak eta zirkulazio librerako funtsezko askatasuna, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan aitortutakoa, eta distortsioa eragiten du Espainiako lan-merkatua Barne Merkatuan sartzearen arloan, bai eta, azken batez, lan-merkatuaren efizientzian ere. Zuzentarau horren transposizioa egiteko epea amaitzeak Europako Batzordeak arau-hausteengatiko prozedura formal bat hastea ekarri du: 2018/0162 zenbakiduna.

Horrenbestez, arrazoiak badaude Konstituzioaren 86.1 artikulua eskatzen duen aparteko eta presazko beharrezana justifikatzen dutenak zuzentarauaren transposizioa errege lege-dekretu honen bidez egiteko, gehiago itxaron gabe.

### III

II. tituluak, zeinak bigarren artikulua hartzen baitu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren transposiziotik datozen aldaketak jasotzen ditu; zuzentarau hori (aurrerantzean, maiatzaren 20ko 2015/849 [EB] Zuzentaraua) sistema finantzarioa kapitalak zurrizteko eta terrorismoa finantzatzeko erabilera eragozteari buruzkoa da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen du eta indarrik gabe uzten ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentaraua eta Batzordearen 2006/70/EE Zuzentaraua.

Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea eragozteko Espainian indarrean zegoen araubidea sakonki aldatu zen Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Eragozteko apirilaren 28ko 10/2010 Legea onestearekin. Arau hori, zeina partzialki aldatu baitzen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen bidez, geroztik osatu zen maiatzaren 5eko 304/2014 Errege Dekretua argitaratzearekin; izan ere, errege-dekretu horren bidez, Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Eragozteko apirilaren 28ko 10/2010 Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zen.

Arau multzo horrek aukera eman zuen, lehenbizi, Espainiako Zuzenbidean FET Finantza Ekintzarako Taldearen 2012ko otsaileko gomendioak sartzeko. Baina, gainera, bi erreforma horiek berekin ekarri zuten 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren edukien zati handi bat aurrez ezartzea. Izan ere, Batasunaren araudia zuzenean FETen gomendioetan oinarritu zen gai honi buruzko erregulazio harmonizatua finkatzeko orduan.

Hala eta guztiz ere, maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren betebeharrak gehienak FETen estandarretan sortzen badira ere, Europako araua harago doa alderdi jakin batzuetan. Hartara, beste betebeharrak batzuk ezartzen ditu; esate baterako, sozietateentzako zerbitzu-emateak lizentzia edukitzeko edo erregistratzeko betebeharrak –erregistroaren aldeko hautua egin da, ekonomikoagoa eta errazagoa baita–. Eta FETen Gomendioetan zehazten ez diren alderdi batzuk harmonizatzen ditu; esate baterako, prebentzio-betebeharrak betetzen ez direnean ezartzekoak diren zehapenen gehieneko zenbatekoa.

Maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentzarautik ekartzeko falta diren elementuen transposizioetik datozen aldaketan barruan, zehapen-araubideari zentzu zabalean dagozkion gaiak nabarmentzen dira bereziki. Hartara, zehapenen gehieneko zenbatekoak handitu dira, zuzentzarauaren xedatutakoarekin bat, baina gutxieneko zenbatekoak ez dira aldatu, zeren eta puntu horretan harmonizaziorik ez baitago eta egokitzat jotzen baita gutxieneko zenbateko horri eustea, araua zuzen aplikatzen dela bermatze aldera.

Zehapenen publizitateari dagokionez, Espainiako araudiak jasota zeukan arau-hauste astun eta oso astunen kasuan publizitatearen aukera, baina, orain, ezarritako zehapenen publizitate anonimoaren elementua gehitzen da, haiek argitaratzeko erabakia hartzen ez den kasurako.

Prebentzio-araudiaren arau-hausteak gainbegiratzeko eta zehatzeko lana hobetzeko asmoz 2015/849 (EB) Zuzentzaraura jasotako beste alderdi bat salaketa-bideak jartzea da, publikoak zein legearen peko subjektuen beren eremukoak. Legearen peko subjektuek berriazko bideak eduki beharko dituzte legearen aurkako edo legea betetzeko entitateak berak onetsitako barne-prozeduren aurkako jokabideen barne-salaketa egiteko. Horrekin batera, bide batzuk sortuko dira legearen peko subjektuek kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa eragozteko araudi administratiboaren betekizunak ustez bete ez dituztenean Administrazioari salatzeko.

Halaber, arau honek berrikusi egiten du erantzukizun publikoa duten pertsonen aplikatzeko den araubidea. 2010eko arauaren sistemak, FETen ikuspegiari jarraituz, pertsona horiek bi talde handitan bereizten zituen eta horretan oinarritzen zen.

Lehenbizi, erantzukizun publikoa zuten atzeritarrei legearen arreta indartuko neurriak aplikatu behar zitzaizkien beti, gure herrialdearekiko lotura faltarengatik eta haiei buruzko informazioa eskuratzeko zailtasunengatik. Erantzukizun publikoa zuten pertsona nazionalak, berriz, kasuan-kasuan egokitutako ikuspegi bat ezartzen zitzaizkien, pertsona bakoitzaren eta haren funtzioen arabera, bai eta kontratatzen zuen produktuaren arabera ere, neurri hauek aplikatzen zitzaizkien edo aplikatzen ez zitzaizkien edo zer neurritan kontuan hartuta.

Maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentzarauarekin, araubide hori batu egiten da, eta erantzukizun publikoa duten pertsona guztiei aplikatu behar zaizkie arreta indartuko neurriak, hala nazionalak nola atzeritarrei, kasu guztietan.

Transposizioarako errege lege-dekretua erabiltzeari dagokionez, esan beharra dago, lehenbizi, 2015/849/EB Zuzentzarauaren transposizioa egiteko epea muga-egunera iritsi

izana dela arrazoia. Zuzentarauaren 67. artikulua araber, estatu kideek, luzeen jota, 2017ko ekainaren 26rako jarri behar zituzten indarrean bertan ezarritakoa betetzeko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak.

Bigarrenik, erregulatu beharreko egoera zehatzari dagokionez, bermatu beharra dago zuzentzarua guztiz indarrean dagoela, legez kanpoko jatorria duten fluxuen aurkako borroka eraginkorra izan dadin.

Kapitalen zuriketak eta terrorismoaren finantzaketak, arrisku sozial ukaezinak ekartzeaz gainera, arrisku ekonomiko eta finantzarioak ere eragiten dituzte. Zehazki, kapitalak zuritzeak eragina izan dezake mugimendu finantzario eta errealetan, eta haietan distortsioak ere sor ditzake, zeren eta baliabideak ez baititu kontsiderazio ekonomiko edo etekinekoetan oinarrituta esleitzen, beste interes batzuetan oinarrituta baizik. Horrekin batera, gisa honetako delitu-jarduerek oso arrisku handiak ekartzen dizkiote bai entitate bakoitzaren eta bai finantza-sistema nazional osoaren ospeari. Arrisku horiek ahal den azkarren gutxitu behar dira.

Legearen peko subjektuek ezarri beharreko tresna eta mekanismoak hobetzeko asmoarekin prestatuta dago araua, kapitalen zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari eraginkortasunez aurre egiteko. Legez kanpoko bi jarduera horiek bereizgarri dute aldatuz joaten direla eta jarritako kontrol- eta prebentzio-mekanismoei egokitzen zaizkiela; hori dela eta, funtsezkoa da araua egoera aldakor horri azkar egokitzea sistema eraginkorra izateko. Alabaina, ez da nahikoa, jakina, arau egokiak ematea, eta horretara behartuta daudenek guztiz bete behar dituzte arau horiek. Horretarako, ahal den bezain laster, behar diren aldaketak egin behar dira arauak betetzen direla bermatzen duten tresnak eta sistemak indartze aldera.

Kasu honetan, Europar Batzordeak arau-hausteen prozedura formal bat hasi zuen, 2017/0527 zenbakiduna, 2015/849/EB Zuzentarauaren transposizio-neurriak ez komunikatzeagatik (gaur egun, irizpen arrazoituaren fasean dago).

Horregatik guztiagatik, onartzen den neurriaren izaera eta xedea ikusirik, eta zer egoeratarako den kontuan hartuz, badago Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua baldintza gisa eskatzen duen aparteko eta presako beharrezana honelako arau bat baliatu ahal izateko.

#### IV

III. tituluak hirugarren eta laugarren artikulua hartzen ditu. Hirugarren artikulua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 11ko 2016/801 (EB) Zuzentzarua barne-ordenamenduan sartzeko aldaketa jasotzen du. Zuzentzari horrek hirugarren herrialdeetako herritarrak sartzeko eta bizilekua izateko baldintzak ezartzen ditu, ikerketan jarduteko, ikasketak egiteko, praktikak egiteko, boluntario gisa jarduteko, ikasleen truke-programetan edo hezkuntza-programetan parte hartzeko edo *au pair* gisa jarduteko.

Europako Kontseiluaren 2014ko ekaineko konklusioek ezarri zuten Europar Batasunaren lehentasun politikoetako bat izango zela «destino erakargarria izaten jarraitzea talentua eta gaitasuna duten pertsonentzat». Geroztik, Migrazioaren Europako Agendak, 2015eko maiatzaren 13an argitaratuak, ezarri zuen gaur egungo 2016/801 (EB) Zuzentarauaren moduko arau bat onestea funtsezko tresnetako bat izango litzatekeela Europa erakargarri bat eraikitzeke ikasleentzat eta ikertzaileentzat eta oro har atzerriko talentua eta ekintzailetza erakartzeko.

Aurrekari horiekin, eta Europar Batasunaren migrazio-politikaren kontzepzio berriaren araber, zeinean legezko migrazioa, eta bereziki migrazio kualifikatua, hazkunderako eta enplegu-sorkuntzarako faktore lagungarri moduan hartzen baita, zuzentarauaren xedea da Europar Batasunak talentua erakartzeko munduko lehian daukan posizioa hobetzea, eta hura sustatzea ikasketak egiteko eta prestakuntzarako bikaintasunaren munduko zentro gisa, migrazioarako barrerak kenduz eta mugikortasunerako eta enplegurako aukera hobeak emanez.

Horretarako, hirugarren herrialdeetako herritarrak Europar Batasunean sartu eta bertan bizilekua izateko baldintza harmonizatu batzuk ezartzen ditu, nahitaez transposizioa egin

beharrekoak, Batasunean ikerketan, ikasketetan, praktketan edo Europako Boluntario Zerbitzuan boluntario moduan jardun dezaten; eta beste baldintza batzuk, berriz, estatu kideentzat aukerakoak direnak, Europako Boluntario Zerbitzutik kanpoko boluntarioentzat, ikasleentzat eta *au pair* moduan jarduten dutenentzat.

Aipatu beharra dago ezen zuzentarauaren xedapenetatik asko jada jasota daudela gure ordenamendu juridikoan: dela Ekintzaileei eta Haien Nazioartekotzeari Laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen nazioarteko mugikortasunari buruzko atalean; dela Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan eta horren Erregelamenduan, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan.

Zehazki, 2016/801 (EB) Zuzentarauaren eta 14/2013 Legearen nazioarteko mugikortasunaren atalaren arteko lerrotak berekin dakar Europako arauaren nahitaezko alderdi batzuk, oraindik ere Espainiako ordenamenduan egon ez eta lege-mailako arau baten bidezko erregulazioa eskatzen dutenak, lege honen aldaketaren bidez transposizioa eginez sartzeari. Zehazki:

72. artikulua aldatzen da, zuzentaruaren eremu subjektiboan sartutako ikertzaileentzako bizileku-baimen bat aurreikusteko; izan ere, Europar Batasunaren barruan aurreikusita dagoen mugikortasunerako eskubidea izango dute; beste ikertzaile batzuentzat, zuzentarauaren 29. kontuan hartuzkoan emandako gaikuntzaren babesean, eutsi egiten zaio jada gure ordenamenduan zegoen baimenari, zeinak ez baitio sarbiderik emango mugikortasun horri.

Ikertzaileari aukera ematen zaio, gainera, behin ikerketa-jarduera amaitu ondoren, gure herrialdean denbora mugagabe batez gelditu dadin enplegua bilatzeko edo enpresa-proiektu bati ekiteko, zuzentarauaren 25. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

75.4 artikulua aldatzen da, eta zuzentarauaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren transposizioa egiten da, urtebetetik beherako balioa duten bizileku-bisak eman ahal izateko.

76. artikulua aldatzen da, eta ezartzen da aginduzkoa dela baimenen izapidetze elektronikoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Zuzentarauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da, Europako arauaren 25. artikuluan ildotik, beren ikasketak Espainian amaitu dituzten nazioarteko ikasleek bizileku-baimen bat eskuratu ahal dezaten enplegua bilatzeko edo enpresa-proiektu bati ekiteko.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da, zeinak bizileku-baimen bat aurreikusten baitu eskaeraren aurreko bi urteetan goi-mailako hezkuntza-titulu bat lortu duten edo goi-mailako hezkuntza-titulu bat lortzera bideratutako ikasketak egiten ari diren atzerritarrentzako praktiketarako programa batean parte hartzeko, zuzentarauaren 3. eta 13. artikuluetan zehaztu bezala.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzen da, tasei buruzkoa, zuzentarauaren 36. artikuluari jarraituz.

Azken xedapenetako hamahirugarrena gehitzen da, eta bertan jasotzen da ezen, nazioarteko mugikortasuna dela-eta irailaren 27ko 14/2013 Legearen aurreikusita ez dagoenerako, 4/2000 Lege Organikoa aplikatuko dela, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, urtarrilaren 11koa.

Errege lege-dekretuaren laugarren artikulua 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzea du xede, nazioarteko ikasleentzako baimenaren prozedurazko alderdiei buruz zuzentaruak dituen artikulua sartzeko gure ordenamenduan, bai lehenengo onarpenaren kasuan, bai EBren barne-mugikortasunaren kasuan ere, eta boluntarioentzako baldintzen eskakizuna zuzentaruaren ezarritakoari egokitzeko boluntario horiek Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzen dutenean. Erregelamenduaren aldaketa hori dela eta, esan beharra dago ezen, errege lege-dekretu baten bidez egiten

bada ere, haren maila ez dagoela izozturik, eta erregelamenduzko izaerari eusten diola. Zehazki:

37. artikulua 3. apartatua aldatzen da, baimenaren iraupena zuzentarauaren 18.1 artikuluari –baimenaren iraupenari buruzkoari– egokitzeko, ikasketak goi-mailako irakaskuntza-erakunde batean egiten direnerako eta goi-mailako hezkuntza-titulu bat lortzera bideratuta daudenerako.

38. artikulua aldatzen da, ikasketengatiko egonaldi-bisa edo -baimena lortzeko baldintzei buruzkoa. Aldaketaren xedea da, batetik, aurretiko bisarik gabeko baimen bat emanaz ikasketengatiko egonaldiaren egoera lortzeko aukera aurreikustea Espainian era erregularrean dauden atzerritarrentzat; eta, bestetik, Europako Boluntario Zerbitzuaren esparruan egiten den boluntario-lanari estaldura emateko erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzeko baldintzaren salbuespena txertatzea Espainiako ordenamenduan, zuzentarauaren 14.1.c) artikulua ezarritakoa.

39. artikulua aldatzen da, prozedurak eta izapideak errazte aldera, zuzentarauaren 7. artikulua 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoari jarraituz. 8. apartatua gehitzen da, EBn ikasketak egiteko egonaldi-baimenaren eskaera aurkezteko aukera emateko ikasleak ikasketak egingo dituen goi-mailako hezkuntza-erakundeari, eta baimenen izapidetze kolektiboak egiteko aukera emateko.

Azkenik, 44. artikulua aldatzen da, Europar Batasunaren barruko mugikortasunari buruzkoa, zuzentarauaren 31. artikuluan ezarritakoari egokitzeko.

Errege lege-dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarrak indarrrik gabe uzten du Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 38. bis artikulua, zeren eta lege horren azken xedapenetako laugarrenean ezarritakoaren arabera ez baitu izaera organikorik. Halaber, indarrrik gabe uzten du lege organiko horren erregelamenduen IV. tituluaren IV. kapitulua, zeinak erregelamenduen 73. artikulutik 84. artikulura bitartekoak hartzen baititu (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori); artikulua horiek 2005/71/EE Zuzentaraua ekartzen zuten gure ordenamendura, hirugarren herrialdeetako herritarrak ikerketa zientifikoa egiteko onartzeko prozedura berariazkoari buruzkoa; zuzentarau hori, ordea, indarrrik gabe geratu da 2016/801 (EB) zuzentarauaren bidez.

2018ko maiatzaren 23an amaitu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 11ko 2016/801 Zuzentarauaren transposizioa egiteko epea. Transposizio-epe horrek ezinezko egiten du egun hori baino lehen transposizioa egiteko betebeharrak betetzeko behar diren arau-xedapenen izapidetzea amaitzea. Transposizioa egiteko epea bete ez eta aipatutako zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan sartzea atzeratzeak ondorio larriak izan ditzakeela ikusita, beharrezkoa da transposizioa egiteko errege lege-dekretu bat onartzea. Zuzentarau horren transposizioa egiteko epea amaitu denez, Europako Batzordeak arau-hausteen prozedura formal bat hasi du: 2018/0166 zenbakiduna.

Horregatik guztiagatik, badago Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua baldintza gisa eskatzen duen aparteko eta presako beharrezko honelako arau bat baliatu ahal izateko.

## V

IV. tituluak, zeinak bosgarren artikulua hartzen baitu, partzialki aldatzen du Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzko urtarrilaren 4ko 19/2003 Legearen 12. artikulua; aldaketaren xedea da legeak ukitutako zehapen-espeditenteak ebazteko gehieneko epea urtebetera luzatzea, hiru hilabetekoa izan beharrean (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen du hiru hilabeteko epea, orokorrean).

Lege horren babesean izapidetu diren zehapen-espeditenteak ebazteko epeetan gertatutako aldaketak dira aldaketa horren arrazoia, zeren eta arestian aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua 2. eta 3. apartatuek ukitzen baitituzte; izan ere,

apartatu horiek ezartzen dute ezen, orokorrean, ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango dela prozedurak erregulatzen dituzten arauak gehieneko eperik ipintzen ez dutenean.

Garrantzitsua da aipatzea ezen Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordeari esleitutako kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen arloko gainerako zehapen-prozedura guztiak Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Eragozteko apirilaren 28ko 10/2010 Legean araututa daudela eta lege horrek espedienteak ebazteko urtebeteko gehieneko epea ezartzen duela (hori da kapitalen mugimenduak mugan ez aitortzeagatik edo nazioko lurraldean eskudiruko mugimenduak ez aitortzeagatik egindako zehapen-espedienteen kasua eta kapitalak zuritzea edo terrorismoa finantzatzea eragoztearen arloko betebeharretan arau-hausteak egiteagatik egindako zehapen-espedienteen kasua).

Hartara, langai dugun zehapen-prozedura atzerriko kontu korranteetako aitortu beharreko mugimenduen eta espainiarrek atzerrian dituzten eta aitortu behar diren inbertsioen (edo alderantzizkoen) deklarazioei buruzko arau-hausteei dagokie, eta zehapen-prozedura hori, besteak ez bezala, lege berezi batean erregulatuta dago, uztailaren 4ko 19/2003 Legean, zeinak 12. artikuluan ezartzen baitu zein diren espedientei hasiera eman eta haiak izapidetu eta ebazteko agintaritzak eskudunak baina ez baitu ezartzen zein den espedienteak ebazteko gehieneko epea –horrenbestez, 39/2015 Legearen 21. artikulua orokorrean ezartzen duenaren barruan geratzen da–.

Epea berehala luzatu behar izateko arrazoia egungo hiru hilabeteko epea da, zeren eta zehapen-prozedura honek urrats eta alde zuzeneko txosten ugari eskatzen baititu instrukzio-prozesuan, eta horiek direla-eta ezinezko gertatzen baita izapidetzea epearen barruan egitea. Biziki larria da hori, gaiaren garrantzia eta lege honen babesean sortutako zehapen-espedienteen kopurua kontuan hartzen badira (une honetan, 40 espediente baino gehiago daude hasiera emateko zain). Horrek guztiak justifikatzen du, zalantzarik gabe, epea lege bidez luzatzeko presara.

Horregatik guztiagatik, badago Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua baldintza gisa eskatzen duen aparteko eta presako beharrezko honelako arau bat baliatu ahal izateko.

## VI

Azkenik, V. tituluak, zeinak seigarren artikulua hartzen baitu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrena aldatzen du. Xedapen haren arabera, 2018ko urriaren 2an, lege horrek honako gai hauei buruz aurreikusitakoak sartuko dira indarrean: ahalordetzeen erregistro elektronikoa, erregistro elektronikoa, enplegatu publiko gaituen erregistroa, Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoa eta artxibo elektronikoa bakarrik.

Urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea funtsezko aldaketa bat dira Espainiako Administrazio Publikoentzat, zeren eta ezartzen baitute harreman elektronikoa dela prozedura administratiboak izapidetzeko bide nagusia, eta horrek berekin ekarri behar du Administrazioa paperik gabekoa, gardena eta arinagoa izatea, eta herritar zein enpresentzat irisgarria. Paradigma administratibo berri honetara pixkanaka egokitzeko beharrezko legegileak ezarri zuen, arestian aipatutako berritasunak –biziki garrantzitsuak guztiak ere– indarrean sartzeko egutegi bat zehaztu baitzuen berriaz urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenean.

Halere, azken xedapenetako zazpigarren horretan ezarritako *vacatio legis* aldia praktikan ez da nahikoa izan aldi berean prest edukitzeko bi lege horiek lortu nahi dituzten helburu handiak betetzeko beharrezkoak diren baldintzak.

Prozedura administratiboak ezin hobeto egokitzeko eta kudeaketa-prozesuak ezin hobeto diseinatzeke, garapen teknologiko eta juridikoek behar den heldutasuna eduki behar dute administrazio publikoaren jardueraren garapen-fase berri horri erantzuteko.

Hartara, alderdi tekniko eta prozedurazko batzuen –esate baterako, jakinarazpenen, ahalduzko erregistroen, gaitutako funtzionarioen edo erregistro orokorreari eta artxiboari buruzko gaien– funtzionamenduak eskatzen duen erregelamenduzko garapena Konstituzio



Auzitegiak berriki eman duen epai batean adierazitakoari egokitu behar zaio (55/2018 epaia, maiatzaren 24koa). Zehazki, beharrezkoa da administrazio publiko eskudunak beren artean ados jartzea eta bakoitzaren eskumen-eremua errespetatuko duen egiazko elkarreragingarritasuna lortzeko aukerak egitea. Akordio hori izango da alderdi funtzional elkarreragingarriari euskarria emango dieten sistema teknologikoak diseinatzeko esparrua; alderdi funtzional horiek, indarrean sartzeko egungo epean, ez daude beharkizun horiei egokituta.

Azken batez, errealitate berriari egokitzeko prozesuak hasiera bateko epeen barruan amaitzeko ezintasun tekniko eta antolamenduzkoa dela eta, luzatu egin behar dira epeok, errege lege-dekretu honen bidez. Horrekin, administrazioen funtzionamenduen oinarritzko tresna horiek honako printzipio hauei jarraituz ezarri nahi dira: eraginkortasun administratiboaren printzipioa eta prozedura administratiboetan herritarren eta eragile juridiko eta ekonomikoen eskubideak bermatzeko printzipioa; urriaren 1eko 39/2015 Legeak, hain zuzen ere, printzipio horiei jarraitzea nahi du.

Aurreko arrazoi guztiak direla eta, urgentetzat eta beharrezkotzat jotzen da bi urtera arte luzatzea 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenean aurreikusitakoak indarrean sartzeko hasierako epea honako gai hauei dagokienez: ahalordetzeen erregistro elektronikoa, erregistro elektronikoa, enplegatu publiko gaituen erregistroa, Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoa eta artxibo elektronikoa. Horrekin, bermatu nahi da eragile juridikoek, herritarrek eta administrazio publikoek beren eskubideak guztiz eta segurtasun juridiko osoz baliatu ahal izatea eta egoera berria haiei ematen hasia den abantailen onurez gozatu ahal izatea.

Epearen luzatze horrek aukera emango du modu koordinatuan amaitzeko alderdi juridiko eta tekniko guztiak eta antolamenduzko eta prozedurazko alderdi guztiak, bateragarri egiten dituztenak eskubideak baliatzeko berme osoa eta prozeduren balio juridikoa, bai eta Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 epai arestian aipatuak berriki berretsi duen eskumen-banaketaren esparruarekiko errespetua ere.

Horregatik guztiatik, badago Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua baldintza gisa eskatzen duen aparteko eta presako beharrezkotasun honelako arau bat baliatu ahal izateko.

Errege lege-dekretu hau koherentea da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan jasotzen dituen erregulazio onaren printzipioekin. Aurreko paragrafoetan azaldutakoak agerian jartzen du bete egiten direla beharrezkotasunari eta egokitasunari buruzko printzipioak. Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasunaren printzipioarekin, zeren eta aipatutako helburuak lortzeko ezinbestekoa den araupetzea jasotzen baitu, eta, aldi berean, segurtasun juridikoaren printzipioari egokitzen baita. Gardentasunaren printzipioari dagokionez, ez da kontsulta publikoaren izapidea bete, ez eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea ere, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua salbuespen hori ezartzen baitu. Azkenik, efizientziaren printzipioari dagokionez, zama administratibo gehiago badakar ere, zama horiek ezinbestekoak dira eta ez dira inolaz ere alferrekoak.

Horregatik guztiatik, haren xedea eta ematen den uneari dagokion denborazko betekizunaren testuingurua direla-eta, Konstituzioaren 86. artikuluan eskatutako aparteko eta urgentziako beharrezkotasunaren inguruabarrak biltzen dira errege lege-dekretu honetan.

Horren arabera, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Gobernuako presidenteorde eta Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Berdintasuneko ministroak, Barneko ministroak, Laneko, Migrazioetako eta Gizarte Segurantzako ministroak, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroak, Ekonomia eta Enpresako ministroak eta Zientziako, Berrikuntzako eta Unibertsitateetako ministroak proposatuta, eta 2018ko abuztuaren 31ko Ministro Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. TITULUA

### **Langileekiko pentsio-konpromisoak babestearen arloko Europar Batasunaren zuzentarauaren transposizioa**

**Lehen artikulua.** *Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzea, zeina azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaz onartu baitzen.*

Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzen da, zeina azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen. Honela aldatzen da:

Bat. Lehen xedapen gehigarria honela geratu da idatzita:

«Lehen xedapen gehigarria. *Langileekin pentsioak direla-eta hartutako konpromisoen babesa.*

1. Enpresek pentsioak direla-eta hartutako konpromisoak, sortutako prestazioak barne, haien kostuaren sortzapena hasten den unetik eratu beharko dira, aseguru-kontratuaren bitartez –horien barruan, enpresetako gizarte-aurreikuspeneko planak eta mendekotasunerako aseguru kolektiboak direla–, pentsio-plan bat eginez edo tresna horietatik bat baino gehiago erabiliz. Behin eratu ondoren, pentsioak direla-eta enpresek beren gain hartutako betebeharrak eta erantzukizun horiek soil-soilik mugatuko dira aseguru-kontratu eta pentsio-plan horietan beren gain hartutako horietara.

Horretarako, pentsioak direla-eta hartutako konpromisotzat hauek hartuko dira: enpresaburuak enpresako langileekin hartutako lege- edo kontratu-betebeharretatik heldutakoak, 8.6 artikuluan ezarritako kontingentziei lotuta daudenak. Pentsio horiek 8.5 artikuluan ezarritako formak eduki ahalko dituzte, eta konpromiso horiek betetzera bideratutako prestazio oro hartuko dute, haren izena edozein dela ere.

Enpresatzat hartuko dira, pertsona fisiko eta juridikoak ez ezik, ondasunen erkidegoak eta gainerako entitateak ere, baldin eta, nortasun juridikorik eduki gabe ere, beren langileekin deskribatutako konpromisoak beren gain hartzeko gai badira.

2. Aseguru-kontratuak, aurreko apartatuan aipatutako xederako balio dezaten, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Bizitzaren gaineko aseguru kolektiboaren, enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planaren edo mendekotasunerako aseguru kolektiboaren forma edukitzea, eta haietan aseguratuaren izaera langileari egokitzea, eta onuradunaren izaera, berriz, hartutako konpromisoen arabera pentsioak norentzat sortzen diren, pertsona horiei.

b) Kontratu horietan ez da aplikatuko Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 97. eta 99. artikuluetan xedatutakoa.

c) Erreskaterako eta murriztapenerako eskubideak honetarako baliatu ahalko dira soilik: une bakoitzean indarrean diren pentsioengatikoko konpromisoen estaldura egokia polizan mantentzeko edo polizan estalitako konpromisoak beste aseguru-kontratu batean, enpresaren gizarte-aurreikuspeneko plan batean edo pentsio-plan batean sartzeko. Azken kasu horretan, pentsioengatikoko aipatutako konpromisoen estaldura osoa hartuko dute aseguru-enpresa berriak edo pentsio-planak beren gain.

d) Poliza bakoitzari dagozkion inbertsioak erregelamendu bidez ezartzen den moduan banakatu beharko dira.

e) Erreskate-eskubidearen zenbatekoa ezin izango da izan kasuan kasuko hornidura teknikoaren inbertsioa osatzen duten aktiboak gauzatzeko balioa baino txikiagoa. Baldin eta hornidura horien estalduran defizitik badago, ezin izango da

jasanarazi defizit hori erreskate-eskubidean, erregelamenduz zehazten diren kasuetan izan ezik. Erreskatearen zenbatekoa zuzenean ordaindu beharko zaio aseguru-enpresa berriari edo pentsio-plan berria integratzen den pentsio funtsari.

Onartu egingo da erreskate-balioa aktiboak eskualdatuz ordaintzea, titulartasun-aldaketetarako egin behar diren gastuetatik garbi.

3. Kasuko primak pentsioengatiko konpromisoak lotzen zaizkien subjektuei egotzi zaizkien aseguru-kontratuetan, subjektuen eskubide ekonomikoak aurreikusi beharko dira, konpromisoan itundutako baldintzekin bat, baldin eta lan-harremana amaitzen bada araudi honetan aurreikusitako kontingentziak gertatu baino lehen, edo subjektu horiei lotutako pentsio-konpromisoa aldatzen bada.

4. Enpresak ordaindutako primen egozpen fiskala langileari egiten ez zaion pentsioengatiko asegurupeko konpromisoetan, konpromisoak erretiroari buruzkoak badira, konpromisoak edo polizak aurreikusten badu langileak eskubide ekonomikoak –kontingentziaren estaldurari dagozkionak– erretiroa hartu baino lehen eskuratuko dituela, eta asegurupeko langilearen lan-harremana amaitzen bada, eskubideak eskuratzeko ezarrita dauden baldintzak izango dira aplikatzekoak; honako betekizun hauek bete beharko dituzte baldintza horiek:

a) Aseguru-kontratura sartzeko itzaroteko gutxieneko aldi bat edo hartan eskubideak eskuratzeko gutxieneko aldi bat zehazten bada, edo biak zehazten badira, biak batuta ezingo dira izan hiru urte baino gehiago.

Pentsio-eskubideak eskuratu eta finkatzeko gutxieneko adin bat jartzen denean, adin hori ez da izango 21 urtetik gorakoa.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez du kentzen hitzarmen kolektiboetan edo pentsioengatiko konpromisoak ezartzen dituzten izaera kolektiboko beste akordio batzuetan beste baldintza batzuk eskatzea eskubideak eskuratzeko.

b) Baldin eta lan-harremana amaitzen bada erretiroa ez den beste arrazoi batengatik eta eskubide batzuk eskuratuta, eskubide horiek ezingo dira txikiagoak izan enpresak erretiroaren kontingentziarako ordaindutako primetatik edo langileak berak ordaindutako primetatik datozen erreskate- eta murriztapen-eskubideak baino.

Nolanahi ere, konpromisoan eta polizan aurreikusitakoari jarraituz, langilearen ezintasunaren edo heriotzaren kasuan, ezarri ahalko da aurreko eskubideen ordezkongingentzia horiengatik aseguraturako prestazioak ezartzea.

c) Apartatu honen a) letran ezarritako baldintzak bete gabe eta enpresak ordaindutako primetatik datozen eskubideak eskuratu gabe lan-harremana amaitzen duten langileek eskatu ahalko dute langileak berak erretirorako ordaindutako primak itzultzeko, edo, bestela, prima horiei dagokien polizaren aktiboak gauzatzearen balioa ordaintzeko.

5. Aseguratutako langileen lan-harremana amaitzen bada, eskuratutako eskubide ekonomikoei aseguru-kontratuan eutsi ahalko zaie, edo, bestela, beste aseguru-kontratu batera edo pentsio-plan batera aldatu ahalko dira, erregelamenduz ezarritako moduan.

Aseguru-kontratuak zehaztu egin beharko du zein den amaieraren unean eta amaieraren ondoren aseguruari eustean eskuratutako eskubide ekonomikoak baloratzeko irizpidea. Polizan edo pentsioengatiko konpromisoan ezarritakoari jarraituz, eskuratu diren eta aseguruan mantentzen diren eskubide ekonomikoak, besteak beste, aseguratu aktiboan eskubideen arabera tratatu ahalko dira, edo pentsioen arabide osagarrian ezarritako interes-tasa batekin doitu edo arabide horri dagozkien inbertsioen errendimenduaren arabera, erabilitako sistema finantzario eta aktuarialarekin bat.

Langileei eskubide ekonomikoak esleitzea aurreikusten duten aseguruetan, lan-harremana erretiroa hartu baino lehen amaitzen bada, lan-harremana amaitzeko unean eskuratutako eskubideen balioa kalkulatu da behin amaituz gero, eta langileak eskuratu dituen eskubide ekonomikoei buruzko eta etorkizunean emango

zaien tratamenduari buruzko informazioa jaso beharko du, edo, kasua bada, informazioa emango zaio langileari berak erretirorako ordaindutako primak itzultzeko aukerari buruz, 4. apartatuaren c) letran ezarritakoaren arabera.

Enplegu sistemako pentsio-planen zehaztapenek eta, kasua bada, oinarri teknikoak zehaztu egin beharko dute lan-harremana amaitu ondoren eskubide kontsolidatuak nola tratatuko diren pentsio-planean mantentzen direnean, pentsio-planean erabilitako sistema finantzarioaren eta aktuarialaren arabera.

6. Erretiro-pentsioengatiko konpromisoak bideratzen dituzten aseguru-kontratuetan, enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planez bestelakoetan, langile aseguratuak informazioa eskatu ahalko du bere banakako egoerari buruz honako elementu hauei dagokienez:

- a) Primen ordainketa eta haren zenbatekoa eta berarengan eragina duten erreskateak eta murriztapenak.
- b) Eskubideak eskuratzeko baldintzak, eta lan-harremana amaitu ondoren baldintza horiek aplikatzearen ondorioak.
- c) Eskuratutako eskubide ekonomikoen balioa, edo haiei buruzko zenbatespen bat, eskaera egiten den egunetik gehienez ere hamabi hilabete lehenago egina.
- d) Lan-harremana amaitzen bada eskubideei etorkizunean emango zaien tratua arautzen duten baldintzak.

Lan-harremana amaitu eta eskubide ekonomikoei eusten dieten asegurudunek ere eskatu ahalko dute c) eta d) letretan aurreikusitako informazioa.

Aurreko paragrafoetan aipatzen den informazio banakatua idatziz eman beharko du aseguru-entitateak, argiro, eskaera aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean.

Enplegu-pentsioen planetan eta enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planetan, gutxienez ere urtean behin, parte-hartzaileei edo aseguratuari informazioa emango zaie beren eskubide kontsolidatu edo ekonomikoen balioari buruz eta lan-harremana amaitu ondoren planean mantentzen diren eskubide horien tratamendua arautzen duten baldintzei buruz eta horiek beste plan batera aldatzeko aukerei buruz.

Apartatu honetan xedatutakoak ez du kentzen erregelamenduz bestelako informazio-betebehar batzuk izatea.

7. Erregelamenduz ezarriko dira xedapen honetan aipatzen diren aseguru-kontratuak bete beharreko baldintzak, horren barnean direla gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen eta haien mutualisten artean aseguru-hartzaile edo aseguratuak diren aldetik gauzatzen direnak. Nolanahi ere, erregelamenduz ezartzen diren baldintzek homogeenak izan beharko dute, ikuspuntu aktuarialetik eta finantzariotik, pentsio-planen bidez formalizatzen diren pentsio-konpromisoei aplikatzekoak diren arauetara.

8. Pentsioengatiko konpromisoak betetzeko eta sortutako prestazioak kobratzeko, lehenengo apartatuan aipatutako tresnetan formalizatu beharko dira horiek. Nolanahi ere, enpresak bere gain hartutako pentsio-konpromisoak gauzatzeko betebeharra ez betetzea lan-arloko arau-hauste oso astuna izango da, Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginak –abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak–ezarritako moduan.

Inolaz ere ez da onargarria izango halako konpromisoei estaldura ematea enpresaburuak barne-funtsak jarriz, edo antzeko tresnak erabiliz, baldin eta eraturako baliabideen titulartasunari gero ere azken horrek eusten badio.»

Bi. Bederatzigarren xedapen iragankorra eransten da, eta honela idatzita geratzen da:

«Bederatzigarren xedapen iragankorra. *Abuztuaren 31ko 11/2018 Errege Lege Dekretua indarrean jartzearen ondoriozko arau iragankorrak.*

1. Lege honen lehen xedapen gehigarriaren 4.b) apartatua xedatutakoa, abuztuaren 31ko 11/2018 Errege Lege Dekretuaren lehen artikuluan emandako testuaren arabera, enpresak 2018ko maiatzaren 21etik ordaindutako primei aplikatu ahalko zaie, egun horretatik aurrera emandako zerbitzuen aldiei dagozkienei.

2. 2014ko maiatzaren 20an langile berriak hartzeari utzi dioten eta langile berrientzat itxita dauden pentsio-konpromisoen kasuan, konpromisoan edo polizan ezarrita dagoen eskubideak eskuratzeko araubidea izango da aplikatzekoa.

3. Aseguru-polizak, zehaztapenak eta pentsio-planen oinarri teknikoak egokitu egin beharko dira lege honen lehen xedapen gehigarrian ezarritakora, aipatutako errege lege-dekretuaren testuaren arabera, 2019ko uztailaren 1a baino lehen; hori, halere, ez da eragozpena izango hartatik datozen eskubideak eraginkortasunez aplikatzeko.

4. Aseguru-entitateek eta pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateek, 2019ko uztailaren 1a baino lehen, prozedurak egokituko dituzte aseguratuak eta parte-hartzaileak informatzeari dagokionez lege honen lehen xedapen gehigarrian ezarritako betebeharrak betetzeko, aipatutako errege lege-dekretuaren testuaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, abuztuaren 31ko 11/2018 Errege Lege Dekretua indarrean sartzen den unetik aurrera, beren lan-harremana amaitzen duten langile aseguratuak informazioa jaso beharko dute eskuratu dituzten eskubide ekonomikoei buruz eta etorkizunean haiei emango zaien tratamenduaren baldintzei buruz.»

Hiru. Hamargarren xedapen iragankorra gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Hamargarren xedapen iragankorra. *Aldekoenak diren baldintzei eustea.*

Lege honen lehen xedapen gehigarrian eta bederatzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatzeak, abuztuaren 31ko 11/2018 Errege Lege Dekretuaren lehen artikulua testuari jarraituz, ezin izango du berekin ekarri ez aurrez eskuratutako eskubideak gutxitzea, ez informaziorako eskubidea murriztea, ez eta bera indarrean sartu aurretik xedatutakoak baino eskuratzeko baldintza okerragoak ezartzea ere.»

## II. TITULUA

### **Kapitalen zuritzea eragozteari buruzko Europar Batasunaren zuzentarauaren transposizioa**

**Bigarren artikulua.** *Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Eragozteko Legea aldatzea (10/2010 Legea, apirilaren 28koa).*

Aldatu egiten da 10/2010 Legea, apirilaren 28koa, Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Eragoztekoa. Hona nola:

Bat. 1. artikulua 4. apartatua honela geratzen da idatzita:

«4. Hirugarren herrialde baliokidetzat hartuko dira, Espainiako legerian jasotako baldintzak ezarriak dituztelako, Kapital Zuritzearen eta Arauhauste Monetarioen Prebentzio Batzordeak haren idazkaritzak proposatuta zehazten dituen estatuak.

Estatu, lurralde edo jurisdikzio bat hirugarren herrialde baliokidetzat kalifikatuta egoteak, nolana ere, ez du atzera-eraginik izango.

Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak bere webgunean hirugarren herrialde baliokidearen izaera duten estatu, lurralde edo jurisdikzioen zerrenda gaurkotua edukiko du.»

Bi. 2. artikulua 1. apartatuko o) eta u) letrak honela idatzita geratzen dira:

«o) Lanbide-izaeraz eta kasuan-kasuan aplikatzekoa den berariazko araudiaren arabera hirugarrenen kontura honako zerbitzu hauek ematen dituzten pertsonak: sozietateak edo bestelako pertsona juridikoak eratzea; sozietate batean administrazio-kontseiluko zuzendaritza-eginkizunak edo kontseilari ez diren idazkarien eginkizunak betetzea edo kanpoko aholkularitzakoak betetzea, elkarte bateko bazkidea izatea edo antzeko eginkizunak edukitzea beste pertsona juridiko batzuekiko, edo xedatzea beste pertsona batek eginkizun horiek bete ditzala; egoitza sozial bat uztea edo merkataritza- zein posta-helbide bat edo helbide administratibo bat edo antzeko beste zerbitzu batzuk ematea sozietate bati, elkarte bati edo beste edozein tresna edo pertsona juridikori; fiduziario-eginkizunak betetzea fideikomiso batean (*trust*) edo antzeko tresna juridiko batean, edo xedatzea beste pertsona batek eginkizun horiek bete ditzala; edo beste pertsona baten kontura akziodun-eginkizunak betetzea, alde batera utzita Europar Batasunean erregulatutako merkatu batean kotizatzen duten sozietateen konturakoak, Batasunaren Zuzenbidearekin edo jabetzari buruzko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideekin bat datozen informazio-baldintzak dauzkaten sozietateen konturakoak, edo xedatzea beste pertsona batek eginkizun horiek bete ditzala.»

«u) Loteriak edo zuzeneko edo baliabide elektronikoko, informatiko, telematikoko edo interaktiboaren bidezko bestelako ausazko jokoak kudeatu, ustiatu eta merkaturatzearen arduradunak. Loterien, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuen, lehiaketan, bingoan eta «B» motako aisia-makinen kasuan, soilik sariak ordaintzeko eragiketei dagokienez.»

Hiru. 2. artikulua hirugarren apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Erregelamendu bidez, kanpoan utzi ahalko dira noizbehinka edo oso modu mugatuan finantza-jarduerak dituzten pertsonak, kapitalak zurrizko edo terrorismoa finantzatzeko arrisku txikia dagoenean. Halaber, kanpoan utzi ahalko dira, guztiz edo partzialki, kapitalak zurrizko eta terrorismoa finantzatzeko arrisku txikia duten ausazko jokoak.»

Lau. Honela idatzita geratzen da 4. artikulua:

«4. artikulua. *Egiatzko titularra identifikatzea.*

1. Behartuta dauden subjektuek egiazko titularra identifikatuko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte haren identitatea egiaztatzeko, negozio-harremanak hasi baino lehen edo beste edozein eragiketa egin baino lehen.

2. Lege honi dagokionez, honako hau joko da egiazko titulartzat:

a) Zer pertsona fisikoren kontura hasi nahi den negozio-harreman bat edo esku hartu nahi den edozein eragiketatan, pertsona fisiko horixe edo horiexek.

b) Pertsona juridiko baten kapitalaren edo boto-eskubideen ehuneko 25etik gora zuzenean edo zeharka daukan edo kontrolatzen duen pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak, edo beste bide batzuetatik pertsona juridiko baten kontrola zuzenean edo zeharka daukana edo daukatena. Kontrola zehazteko, besteak beste, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

Beste bide batzuen bidezko kontrolaren adierazleak, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikulua (1) etik (5)era aurreikusitakoak izango dira. 2013/34/EB Zuzentaria, 2013ko ekainaren

26koa, zenbait motatako enpresen urteko egoera-orri finantzarioari, egoera-orri finantzario kontsolidatuari eta kideko beste txosten batzuei buruzkoa da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/43/EE Zuzentaraua aldatzen du eta Kontseiluaren 78/660/EEE eta 83/349/EEE zuzentarauak indargabetzen ditu.

Merkatu arautu batean kotizatzen duten sozietate batzuk salbuetsiko dira, Batasunaren Zuzenbidearekin bat datozen informazio-betekizunak dituztenak edo jabetzari buruzko informazioan gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideak dituztenak.

c) Fideikomisoen kasuan, nola baita *trust* anglosaxoia, pertsona hauek guztiak hartuko dira egiazko titulartzat:

- 1.a fideikomisogilea;
- 2.a fiduziarioa edo fiduziarioak;
- 3.a babeslea, halakorik badago;
- 4.a onuradunak edo, oraindik ere izendatu gabe daudenean, egitura juridikoa zein pertsona-kategoriaren onurarako sortu den edo jarduten duen, pertsona-kategoria hori; eta
- 5.a beste edozein pertsona fisiko, azken buruan fideikomisoa kontrolatzen duena zuzeneko edo zeharkako jabetzaren bidez edo beste baliabide batzuen bidez.

d) *Trust* delakoaren antzeko tresna juridikoen kasuan, nola baitira fiduziak eta Alemaniako legeriako *treuhand* deitutakoa, betebeharpeko subjektuek identifikatu eta behar diren neurriak hartuko dituzte aurreko apartatuko 1.tik 5.era arteko zenbakietan aipatzen direnen posizioen baliokideak edo antzekoak dauzkaten pertsonen identitatea egiaztatzeko.

3. Betebeharpeko subjektuek bezeroen informazioa hartuko dute, beren kontura edo hirugarrenen kontura diharduten zehazte aldera. Bezeroek beren kontura jarduten ez dutela iradokitzen duten zantzuak edo ziurtasuna izanez gero, betebeharpeko subjektuek behar den informazioa bilduko dute haien zer pertsonaren kontura jarduten duten jakiteko eta pertsona horiek nor diren jakiteko.

4. Betebeharpeko subjektuek behar diren neurriak hartuko dituzte pertsona juridikoen, nortasunik gabeko egitura juridikoen, fideikomisoen eta antzeko beste edozein egituraren jabetzari eta kontrolari dagokion egitura zehazteko.

Betebeharpeko subjektuek ez dute negozio-harremanik hasiko edo edukiko pertsona juridikoekin edo nortasunik gabeko egitura juridikoekin, baldin eta haien jabetza eta kontrola ezin izan badira zehaztu. Akzioak eramaile-tituluaren bitartez ordezkatuta dauzkaten sozietateen kasuan, debeku hori aplikatuko da, non eta betebeharpeko subjektuak ez dituen beste bide batzuetatik zehazten jabetzaren eta kontrolaren egitura. Debeku hori ez zaio aplikatuko eramaile-tituluak titulu izendun edo kontuko idatzohar bihurtzeko ekintzari.»

Bost. 7. artikulua 5. eta 6. apartatuak eta 7. apartatua, berria, honela geratzen dira idatzita:

«5. Joko-kasinoek dokumentu fede-emaielen bidez identifikatuko dituzte establezimendura sartu nahi duten pertsona guztiak eta egiaztatuko dute haien identitatea. Pertsona horien izen-abizenak erregistratu egingo dira, 25. artikuluan xedatutakoa betetzea eragotzi gabe.

Halaber, joko-kasinoek honako eragiketa hauek egin nahi dituzten pertsona guztiak identifikatuko dituzte:

- a) Bezeroei txekeak ematea fitxak aldatzeko eragiketen ondorioz.
- b) Bezeroen eskariz kasinoek egindako funts-transferentziak.
- c) Jokalariak lortutako irabazirik egiaztatzen dituzten kasinoaren ziurtagiriak egitea.

2.000 euroren edo gehiagoren balioa duten transakzioak egiten direnean eragiketa bakar batean –edo zenbait eragiketatan egiten direnean eta haien artean itxura batean erlazioen bat dagoenean–, dela irabaziak kobratzeko unean, dela joko-fitxak erosteko edo saltzeko unean, bezeroarekiko arreta egokiari buruzko gainerako neurriak aplikatu beharko dituzte kasinoek, atal honetan ezarritako moduan.

6. Baliabide elektronikoen, informatikoen, telematikoen eta interaktiboen bidezko jokoan operadoreek joko edo apustu horietan parte hartu nahi duten pertsona guztiak identifikatuko dituzte eta haien identitatea egiaztatuko dute, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

2.000 euroren edo gehiagoren balioa duten transakzioak egiten direnean eragiketa bakar batean –edo zenbait eragiketatan egiten direnean eta haien artean itxura batean erlazioen bat dagoenean–, joko-operadore horiek bezeroarekiko arreta egokiari buruzko gainerako neurriak aplikatu beharko dituzte irabaziak kobratzeko edo apustuak egiteko unean, atal honetan ezarritako moduan.

Zuzeneko baliabideen bidezko jokoan operadoreek arreta egokiari buruzko neurriak aplikatuko dituzte 2.000 euroren edo gehiagoren balioa duten transakzioak egiten direnean eragiketa bakar batean, edo zenbait eragiketatan egiten direnean eta haien artean itxura batean erlazioen bat dagoenean.

7. Baimena eman ahal izango da, erregelamenduz, arreta egokiko edo dokumentuak kontserbatzeko neurri guztiak edo zenbait neurri ez aplikatzeko kopuru jakin bat –dela bakuna, dela hainbat alditan zehar metatua– gainditzen ez duten noizbehinkako eragiketetan.»

Sei. Honela geratzen dira idatzita 8. artikulua 1. eta 2. apartatuak:

«1. Betebeharpeko subjektuek lege honen peko hirugarrenengana jo ahalko dute, bai eta subjektu horien antolakunde edo federazioetara ere, atal honetan arreta egokiari buruz aurreikusitako neurriak aplikatzeko, 6. artikuluan araututako negozio-zerrendaren jarraipen etengabearen salbuespenarekin. Muga hori ez da aplikatzekoa izango taldeen kasuan.

Hala eta guztiz ere, betebeharpeko subjektuek negozio-zerrenda edo eragiketa dela-eta erabateko erantzukizuna izango dute orduan ere, baita ez-betetzea hirugarrenari egoztekoa denean ere; hori, halere, ez da eragozpena izango azken horrek erantzun behar izateko.

2. Betebeharpeko subjektuek jo ahalko dute kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea eragozteko Europar Batasuneko beste estatuetako edo herrialde baliokideetako legeriaren pean dauden hirugarrenengana, bai eta betebeharpeko entitate horien antolakunde edo federazioetara ere, baita estatu edo herrialde haietan eskatutako dokumentu edo datuak lege honetan aurreikusitakoez bestelako batzuk direnean ere, baldin eta betetzeko ikuskatze-lana egiten badute agintaritza eskudunek.

Debekatuta dago gabezia estrategikoak dituzten eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera identifikatuta dauden herrialdeetan helbidea duten hirugarrenengana jotzea; horretan, salbuespena izango dira partaidetza gehiena Europar Batasunean ezarrita dauden subjektu behartuek duten sukurtsalak eta filialak, baldin eta sukurtsal eta filial horiek guztiz betetzen badituzte matrizeak talde-mailan ezarritako politikak eta prozedurak.»

Zazpi. Honela idatzita geratzen da 11. artikulua:

«11. artikulua. *Arreta egokiari buruzko neurri indartuak.*

1. Betebeharpeko subjektuek, arreta egokiari buruzko neurri normalez gainera, neurri indartuak hartuko dituzte kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurkako beren borroka-sistemetan gabezia estrategikoak dituzten herrialdeekiko,



baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera Europako Batzordeak hartutako erabakian jasota badaude herrialde horiek.

2. Betebeharpeko subjektuek, halaber, neurri indartuak hartuko dituzte atal honetan aurreikusitako kasuetan, eta beste edozeinetan, baldin eta erregelamenduz hala zehazten bada kapitalak zurtzeko edo terrorismoa finantzatzeko arrisku handia dakartelako.

Betebeharpeko subjektuek, arriskuaren analisiaren arabera, arreta egokiari buruzko neurri indartuak hartuko dituzte beren izaera bera dela-eta kapitalak zurtzeko edo terrorismoa finantzatzeko arrisku handiagoa izan dezaketen egoeretan. Nolanahi ere, halakotzat hartuko dira banka pribatuko jarduerak eta dirua bidaltzeko eta dibisa-trukeko eragiketak, erregelamenduz ezarritako atalaseak gainditzen dituztenak.

3. Erregelamendu bidez zehaztu ahalko dira kapitalak zurtzeko edo terrorismoa finantzatzeko arrisku handiagoa duten negozio-arloetan edo jardueretan eskatzekoak diren arreta egokiari buruzko neurri indartuak.»

Zortzi. Honela idatzita geratzen da 13. artikulua:

«13. artikulua. *Mugez gaindiko banku-korrespontsalia.*

1. Korrespontsalia-harremantzat hau hartzen da: banku baten banku-zerbitzuak ematea, korrespontsal moduan, bezero den beste banku bati; zerbitzu horien artean, kontu-korronteak edo pasiboko bestelako kontuak eta horrekin lotutako zerbitzuak ematea dago –besteak beste, eskudiruaren kudeaketa, funtsen nazioarteko transferentziak, txeeen konpentsazioa eta dibisen truke-zerbitzuak–.

Korrespontsalia-harremanen kontzeptuak kreditu-entitateen edo finantza-entitateen arteko era guztietako harremanak biltzen ditu –ordainketa-entitateenak barne–, korrespontsal batek bezero bati ematen dizkienaren antzeko zerbitzuak ematen badituzte; harreman horien artean, besteak beste, baloreekiko eragiketarako eta funtsen transferentziarako direnak daude. Kasu horietan guztietan artikulua honetan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

2. Beste herrialde batzuetakoak eta bezero diren entitateekiko mugez gaindiko korrespontsalia-harremanei dagokienez, finantza-entitateek honako neurri hauek aplikatu beharko dituzte:

a) Bezeroa den entitateari buruz behar adina informazio biltzea, entitatearen jardueren izaera ulertzeko eta, publikoa den informaziotik abiatuta, haren entitateak zer ospe duen eta haren ikuskatzeak zer kalitatetakoak diren zehazteko.

b) Bezeroa den entitateak kapitalen zurtzearen aurka eta terrorismoaren finantzaketaren aurka dauzkan kontrolak ebaluatzea.

c) Zuzendaritzaren baimena lortzea banku-korrespontsaliako harreman berriak hasi baino lehen. Entitatearen barne-prozeduretan, negozio-harremanak hasteko edo edukitzeko baimenerako gutxienez behar den zuzendaritza-maila zehaztuko da, eta hori arriskuaren arabera egokitu ahalko da. Eginkizun hori esleiturik soilik eduki ahalko dute betebeharpeko subjektuak kapitalen zurtzearen eta terrorismoaren finantzaketaren aurrean daukan arriskuari buruz behar adina dakiten pertsonak; horretarako, betiere, behar besteko hierarkia eduki beharko dute arrisku horretan eragina duten erabakiak hartzeko.

d) Entitate bakoitzaren erantzukizunak dokumentatzea.

e) Negozio-harremanaren esparruan egindako eragiketen jarraipena indartzea eta jarraipen hori iraunkorki egitea, honako arrisku hauek kontuan hartuta: geografikoak, bezeroarenak edo emandako zerbitzu motatik datozenak.

Finantza-entitateek neurrien aplikazioaren gradua eta intentsitatea modulatuak dituzte, arrisku-irizpide baten arabera.

3. Kreditu-entitateek ez dute korrespontsalia-harremanik hasiko edo edukiko banku simulatuekin. Halaber, kreditu-entitateek behar diren neurriak hartuko dituzte segurtatze aldera ez dutela korrespontsalia-harremanik hasten banku batekin baldin eta jakina bada hark bere kontuak banku simulatuek erabiltzea onartzen duela.

Ondore horietarako, hau joko da banku simulatutzat: kreditu-entitate bat edo antzeko jarduera bat garatzen duen entitate bat, berak presentzia fisikorik ez duen herrialde batean eratuta dagoena, egiazko kudeaketa- eta zuzendaritza-lana egiteko aukera ematen duena eta araututako finantza-talde baten filiala ez dena.

4. Kreditu-entitateek ez dute korrespontsalia-harremanik hasiko edo edukiko, baldin eta harreman horiek, zuzenean nahiz azpikontu baten bidez, ordezkaturako kreditu-entitatearen bezeroei eragiketarako egiteko aukera ematen badiete.»

Bederatzi. Honela idatzita geratzen da 14. artikulua:

«14. artikulua. *Erantzukizun publikoa duten pertsonak.*

1. Betebeharpeko subjektuek artikulua honetan ezartzen diren arreta egokiaren neurri indartuak hartuko dituzte erantzukizun publikoa duten pertsonen negozio-harremanetan edo eragiketetan.

2. Erantzukizun publikoa duten pertsonatzat eginkizun publiko garrantzitsuak betetzen dituztenak edo bete izan dituztenak hartuko dira. Besteak beste, estatuburuak, gobernuburuak, ministroak edo gobernuetako beste kide batzuk, estatu-idazkariak edo -idazkariordeak; parlamentariak; auzitegi gorenetak, konstituzio-azitegietak eta beste goi-erakunde judizial batzuetako magistratuak, baldin eta haien erabakien kontra, salbuespenezko egoeretan izan ezik, ezin bada arruntean errekurtsorik aurkeztu, hor sartzen direlarik fiskaltzetako haien pareko kideak; kontu-azitegietak edo banku zentraletako kontseiluetako kideak; enbaxadore eta negozio-arduradunak; indar armatuetako goi-mailako militarrik; enpresa publikoetako administrazio-, kudeaketa- edo gainbegiratze-organoetako kideak; nazioarteko antolakundeetako zuzendariak, zuzendarien ondokoak eta administrazio-kontseiluko kideak edo antzeko eginkizuna dutenak, eta parlamentu-ordezkaritza duten alderdi politikoetako goi-zuzendaritzako kargudunak.

3. Halaber, honako hauek hartuko dira erantzukizun publikoa duten pertsonatzat:

a) Aurreko apartatuan aipatutakoez beste pertsona batzuk, goi-kargudunaren izaera dutenak Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Espainiako esparru autonomikoan eginkizun publiko garrantzitsuak betetzen dituzten edo bete izan dituzten pertsonak; esate baterako, presidenteak eta kontseilariak eta Gobernu Kontseiluetako gainerako kideak, bai eta a) letran aipatutakoen baliokideak diren karguak betetzen dituzten pertsonak eta diputatu autonomikoak ere.

c) Espainiako tokiko esparruan, alkateak, zinegotziak eta probintzietako hiriburu diren udaletan edo autonomia-erkidegoan edo 50.000 biztanletik gorako toki-entitateetan a) letran aipatutakoen kargu baliokideak betetzen dituzten pertsonak.

d) Espainiako sindikatu- edo enpresa-antolakundeetako goi-zuzendaritzako kargudunak.

Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordeak zerrenda bat egin eta argitaratuko du, zeinean zehaztuko baita zer eginkizun eta postuk dakarten pertsona batek Espainian erantzukizun publikoa izatea.

4. Aurreko apartatuetan aurreikusitako kategorietako bakarrak ere ez ditu jasoko maila ertain edo behezagokoetako enplegatu publikoak.

5. Artikulu honetan aipatutako bezero edo titular errealei dagokienez, betebeharpeko subjektuek, arreta egokiari buruzko neurri normalak hartzeaz gainera, honako hauek egin beharko dituzte, nolana ere:

- a) Arriskua kudeatzeko prozedura egokiak aplikatu beharko dituzte, bezeroa edo egiazko titularraren erantzukizun publikoa duen pertsona bat den edo ez zehaztearen. Prozedura horiek 26. artikuluan aipatzen den bezeroak onartzeko berariazko politikan sartu beharko dira.
- b) Zuzendaritza-maila hurrenekoaren baimena eskuratzea, gutxienez, negozio-harremanak hasteko edo edukitzeko.
- c) Ondarearen eta funtsen jatorria zehazteko neurri egokiak onartzea.
- d) Negozio-harremana arreta handiagoarekin eta iraunkorarekin zaintzea.

Entitatearen barne-prozeduretan, negozio-harremanak hasteko edo edukitzeko baimenerako gutxienezko zuzendaritza-maila zehaztuko da, eta hori eragiketaren arriskuaren eta bezero zehatzaren arabera egokitu ahalko da. Eginkizun hori esleiturik eduki ahalko dute soilik betebeharpeko subjektuak kapitalen zurriztearen eta terrorismoa finantzatzearren aurrean daukan arriskuari buruzko behar adinako ezagutza duten pertsonak, baldin eta arrisku horretan eragina duten erabakiak hartzeko behar besteko hierarkia badute.

6. Betebeharpeko subjektuek erantzukizun publikoarekiko pertsonen senideei eta hurrekoei aplikatuko dizkiete aurreko apartatuan ezarritako neurriak.

Artikulu honetan ezarritakoetarako, hauek joko dira senitartekotzat: ezkontidea delako edo maitasun-harreman kidekoa delako harreman egonkorra duen pertsona, eta gurasoak eta seme-alabak, eta ezkontideak direlako edo maitasun-harreman kidekoa dutelako seme-alabekin lotura duten pertsonak.

Hurrekotzat hauek joko dira: erantzukizun publikoarekiko pertsona batekin batera tresna edo pertsona juridiko baten titulartasuna edo kontrola duela nabarmena den pertsona fisiko oro, eta erantzukizun publikoa duen harekin beste enpresa-harreman estu batzuk dituztenak, eta haren onurarako eratu dela nabarmena den tresna edo pertsona juridiko baten titulartasuna edo kontrola dutenak.

7. Betebeharpeko subjektuek arrazoizko neurriak hartuko dituzte bizitza-aseguru baten polizako onuraduna eta –hala badagokio– onuradunaren egiazko titularraren erantzukizun publikoa duen pertsona bat ote den zehaztearen, kontratuaren ondoriozko prestazioa ordaindu aurretik edo polizak ematen dituen berreskuratzeko, aurreratze edo pignoratzeko eskubideak baliatu aurretik. Halakoetan, betebeharpeko subjektuek, arreta egokiaren neurri normalez gain, honako betebehar hauek izango dituzte:

- a) Zuzendaritza-maila hurrekoari jakinaraztea, gutxienez, ordaindu, berreskuratu, aurrerakina hartu edo pignoratu aurretik.
- b) Polizaren hartzailearekiko negozio-harreman osoaren azterketa sakonagoa egitea.
- c) Azterketa berezia egitea, 17. artikuluan jasotakoa, erabakitzearen ea badagokion zantzuen jakinarazpena egitea 18. artikuluan arabera.

8. Baldin eta, aurreko apartatuetan ezarritakoa bete beharra eragotzi gabe, 17. artikuluan ezarritako egoera suertatu delako azterketa berezia egin behar bada, betebeharpeko subjektuek behar diren neurriak hartuko dituzte zehaztearen ea administrazio publikoetako ordezkari-kargu publikoa edo goi-kargua izan duen inork edo haren senitarteko edo hurrekoek dena delako gertaera edo eragiketa horretan parte hartu duten edo ez.

9. Lege honetako 11. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, aurreko apartatuetan aipatzen diren pertsonak beren eginkizun horiek betetzeari utzi ondoren ere, betebeharpeko subjektuek beste bi urtez aplikatuko dituzte artikulu honetan xedatutako neurriak. Epe hori iraganda, betebeharpeko subjektuak arreta egokiari buruzko neurriak aplikatuko ditu, bezeroak izan dezakeen arriskuaren arabera.

harik eta betebeharrekoak erabakitzen duen arte lehenago erantzukizun publikoa izandako pertsona izatetik datorren arrisku berariazkorik ez dagoela.»

Hamar. 25. artikulua 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Betebeharreko subjektuek hamar urtez gordeko dute lege honetan ezarritako betebeharrak betetzeko sortutako dokumentazioa, eta, ondotik, deuseztatu egingo dute. Negozio-harremana amaitu zenetik edo noizbehinkako eragiketa egin zenetik bost urte iragan direnean, betebeharreko subjektuaren barne-kontrolako organoek soilik eskuratu ahalko dute kontserbatutako dokumentazioa, horien barnean direla prebentzioko unitate teknikoak eta, kasua bada, haren lege-defentsaz arduratzen direnak.

Zehazki, betebeharreko subjektuek honako hauek kontserbatuko dituzte, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak edo legez eskuduna den beste edozein agintaritzak ikerketetan edo analisietan erabil ditzan, kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko kasuak izan daitezkeenetan:

- a) Arreta egokiari buruzko neurriak aplikatuta eskatzekoak diren dokumentuen kopia, negozio-harremana edo eragiketa amaitu denetik hamar urteko epean.
- b) Eragiketak, haietan esku hartutako pertsonak eta negozio-harremanak behar bezala ziurtatzen dituzten dokumentu edo erregistroen jatorrizko alea edo froga-indarra duen kopia, eragiketa egin denetik edo negozio-harremana amaitu denetik hamar urteko epean.

Hamaika. Honela idatzita geratzen da 26. artikulua:

«26. artikulua. *Politikak eta prozedurak.*

1. Betebeharreko subjektuek behar diren politika eta prozedurak onetsiko dituzte idatziz, eta aplikatuko, arreta egokiari, informazioari, dokumentuen kontserbazioari, barne-kontrolari, arriskuen ebaluazio eta kudeaketari, dagozkion xedapenak betetzea bermatzeari eta komunikazioari buruz, kapitalen zuritzearekin edo terrorismoaren finantzaketarekin lotutako eragiketen kontra egiteko eta haiek eragozteko.

2. Betebeharreko subjektuek berariazko politika bat onetsiko dute idatziz, eta aplikatuko, bezeroen onarpenari buruz. Politika horrek batez besteko arriskutik gorakoa izan dezaketen bezero moten deskribapen bat jasoko du. Bezeroak onartzeko politika graduala izango da, eta ardura-neurri indartuak hartuko dira batezbestekotik gorako arriskua duten bezeroak direla eta.

Lege honi lotutako lanbide kolegiatuaren prebentziorako organo zentralizatu bat baldin badago, hari egokituko zaio bezeroak onartzeari buruzko berariazko politika idatziz onestea.

3. Politikak eta prozedurak hirugarren herrialdeetan kokatuta dauden taldeko sukurtsal eta filialei aplikatuko zaizkie, ezertan kendu gabe harrerako herrialdearen berariazko arauak betetzeko behar diren egokitzapenak, erregelamenduz zehazten diren zehaztapenekin. Taldeak Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan dauzkan sukurtsal eta filialen kasuan, betebeharreko subjektuek harrerako herrialdean jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Taldearen definiziorik ezean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

4. Europar Batasuneko herrialde batean agenteen bidez edo sukurtsala ez den establezimendu iraunkorren beste moduren batez jarduten duten Espainiako entitateek, lege honetan xedatutakoaren aplikazioa ezertan kendu gabe, jarduten duten herrialde horretan kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa eragozteko duten araudian xedatutakoa bete beharko dute.

5. Betebeharreko subjektuek kapitalen zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako eskuliburu egoki bat onetsi beharko dute, eta eskuliburu hori eguneratuta edukiko dute, aurreko apartatueta aipatzen diren barne-kontrolako

neurriei buruzko informazio guztiarekin. Gainbegiratze- eta ikuskatze-eginkizuna bete dezan, eskuliburu Batzordearen Zerbitzu Exekutiboaren eskura egongo da, eta, hitzarmenik dagoen kasuetan, finantza-entitateen organo gainbegiraleen eskura.

6. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak eta, hitzarmenik dagoen kasuetan, finantza-entitateetako organo gainbegiraleek Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordeko Komite Iraunkorrari proposatu ahalko diote errekerimenduak egiteko, betebeharpeko subjektuek zuzenketa-neurri egokiak har ditzaten beren eskuliburu eta barne-prozeduretan.

7. Erregelamendu bidez zehaztu ahalko da betebeharpeko subjektuetatik zein dauden artikuluko honen 1., 2. eta 5. apartatuetan aipatutako betebeharrak betetzetik salbuetsita.

Hamabi. 26. bis artikulua gehitzen da. Honela dio:

«26. bis artikulua *Ustezko ez-betetzeak jakinarazteko barne-prozedurak.*

1. Betebeharpeko subjektuek barne-prozedurak ezarriko dituzte beren enplegatu, zuzendaritzako kide edo agenteek informazio garrantzitsua komunikatu ahal dezaten, baita modu anonimoan ere, lege honen, bera garatzeko araudiaren edo haiek betetzeko ezarritako politiken edo prozeduren ustezko ez-betetzei buruz, betebeharpeko subjektuaren baitan gertatu direnei buruz.

Prozedura horiek sartu ahalko dira aplikatzekoa den gainerako araudi orokorraren edo sektorekoaren aurka gerta litezkeen egintzei edo jokabideei buruzko informazioak komunikatzeko betebeharpeko subjektuak ezarriak dituen sistemetan.

2. Sistema eta prozedura horiei izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudian barne-salaketen informazio-sistemarako ezarritakoa aplikatuko zaie.

Ondore horietarako, soilik 26. ter artikuluan araututakoak jotzen dira barne-kontrolako eta betetzea kontrolatzeko organotzat.

3. Betebeharpeko subjektuek behar diren neurriak hartuko dituzte bermatze aldera entitatean egindako arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten enplegatuak, zuzendaritzako kideak edo agenteak errepresalietatik, diskriminazioetatik eta beste edonolako tratu bidegabeetatik babesten direla.

4. Nahiz eta aurreko apartatuetan ezarritako komunikazio-prozedura ezartzeko betebeharra izan, mekanismo berariazko eta independenteak beharko dira enplegatuak barne-komunikazioak egiteko kapitalen zuritzearekin edo terrorismoaren finantzaketarekin lotuta egotearen susmagarriak diren eta 18. artikuluan aipatzen diren eragiketarik direla-eta.

5. Erregelamendu bidez zehaztu ahalko da betebeharpeko subjektuetatik zein dauden artikuluko honetan aurreikusitako betebeharra betetzetik salbuetsita.»

Hamahiru. 26. ter artikulua gehitzen da; honela geratzen da idatzita:

«26. ter artikulua. *Barne-kontrolako organoa eta Zerbitzu Exekutiboan izango den ordezkaria.*

1. Betebeharpeko subjektuek Espainian bizilekua duen eta sozietatearen administrazio- edo zuzendaritza-kargua betetzen duen pertsona bat izendatuko dute Batzordeko Zerbitzu Exekutiborako ordezkari.

Betebeharpeko subjektu bat baino gehiago biltzen dituzten taldeetan, ordezkaria bakarra izango da, eta taldeko sozietate nagusiaren administrazio- edo zuzendaritza-kargua bete beharko du.

Banakako enpresaburu edo profesionalen kasuan, jardueraren titularra izango da Batzordeko Zerbitzu Exekutiborako ordezkaria.

2. Erregelamendu bidez ezartzen diren salbuespenekin, ordezkaria izendatzeko proposamena Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari komunikatuko zaio, eta, harekin batera, pertsona haren ibilbide profesionalaren deskribapen xehakatu,

eta zerbitzu horrek haiei buruzko eragozpenak azaldu eta oharrak egin ahalko ditu, arrazoituta.

Batzordeko Zerbitzu Exekutiborako izendatu den ordezkaria izango da lege honetan ezarritako informazio-betebeharrak betetzearen erantzulea; horretarako, eskura izango du, inongo mugarik gabe, betebeharreko subjektuak eta –hala badagokio– taldeko entitateetako edozeinek daukaten informazio guztia.

3. Betebeharreko subjektuek, administrazio nagusia Europar Batasuneko kide den beste estatu batean badute eta Espainian agenteen bidez edo sukurtsala ez den establezimendu iraunkorren beste moduren batez jarduten badute, Espainian bizilekua duen ordezkari bat izendatu beharko dute, eta bera hartuko da harremanetarako gune nagusizat.

Espainian zerbitzuen prestazio librearen araubidean jarduten duten betebeharreko subjektuek, halaber, ordezkari bat izendatu beharko dute Batzordeko Zerbitzu Exekutiboan, eta ez da eskatzekoa izango Espainian bizilekua izan dezan.

4. Betebeharreko subjektuek barne-kontrolerako organo egoki bat ezarriko dute 26. artikuluan aipatzen diren politikak eta prozedurak aplikatzeaz arduratzeko.

Barne-kontrolerako organoa, zeinak, kasua bada, betebeharreko subjektuaren negozio-arlo bakoitzeko ordezkariak izango baititu, aldian behin bilduko da, barne-kontrolerako prozeduran zehazten den moduan, eta hartutako erabakien berariazko akta egingo du.

5. Beren eginkizunak betetzeko, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboko ordezkariak eta barne-kontrolerako organoak behar diren baliabide material eta teknikoak eta giza baliabideak eduki beharko dituzte.

6. Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea eragozteko organoek, nolahi ere, betebeharreko subjektuaren barne-auditoriako departamentutik edo unitatetik funtzionalki berezita jardungo dute.

7. Erregelamendu bidez zehaztuko dira barne-kontrolerako organo bat eratzeko betebeharretik salbuetsi ahalko diren betebeharreko subjektuen kategoriak, eta organo horren eginkizunak, kasu horretan, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboan dagoen ordezkariak beteko ditu.

Erregelamenduzko arauak zehaztuko du, halaber, betebeharreko subjektuetatik zein kategoriatan eskatuko den informazioaren tratamendurako eta analisirako unitate teknikoak eratzea.»

Hamalau. 27. artikulua 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Ekonomiako eta Enpresako ministroaren agindu baten bidez erabaki ahalko da lege honen peko lanbide kolegiatuetan prebentziorako organo zentralizatuak eratzea.

Prebentziorako organo zentralizatuak eginkizun hau izango dute: kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea eragozteaz eta erreprimiteaz arduratzen diren agintaritza judizial, polizial eta administratiboekin lanbide kolegiatuak eduki beharreko lankidetzaren areagotzea eta bideratzea; hori, halere, ez da eragozpena izango betebeharreko subjektu gisa sartutako profesionalen zuzeneko erantzukizunerako. Prebentziorako organo zentralizatuaren ordezkaria sartzen diren profesionalen ordezkaria izango da 26. ter artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.»

Hamabost. 28. artikulua 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. 26., 26. bis eta 26. ter artikuluek aipatzen dituzten barne-kontrolerako neurriak eta organoak azterketa bat egingo die urtero kanpoko aditu batek.

Azterketaren emaitzak idatzizko txosten batean jasoko dira. Txosten horretan xehetasunez deskribatuko dira ezarritako dauden barne-kontrolerako neurriak, haien eraginkortasun operatiboa baloratuko da eta, kasua bada, zuzenketa edo hobekuntzak proposatuko dira. Hala eta guztiz ere, txostena egin eta hurrengo bi urteetan, horren ordez, kanpoko adituak egindako jarraipen-txostena erabili ahalko

da; txosten hori, baina, atzemandako gabeziei konponbidea emateko betebeharreko subjektuak hartu dituen neurrien egokitasunari buruzkoa izango da soil-soilik.

Ekonomiako eta Enpresako ministroaren aginduaren bidez, txostenetarako erabili beharreko ereduak onetsi ahalko dira.

Txostena egin eta gehienez ere hiru hilabetera aurkeztuko zaio Administrazio Kontseiluari edo, kasua bada, betebeharreko subjektuaren administrazio-organoari edo zuzendaritza-organo nagusiari, eta organo horrek behar diren neurriak hartuko ditu atzemandako gabeziei konponbidea emateko.»

Hamasei. Honela idatzita geratzen da 30. artikulua:

«30. artikulua. *Enplegatuen, zuzendaritzako kideen eta agenteen babesa eta egokitasuna.*

1. Betebeharreko subjektuek behar diren neurriak hartuko dituzte barne-kontrolako organoei kapitalen zurrizkarekin edo terrorismoaren finantza-zerikusia izateko zantzuak dituzten edo argi eta garbi zerikusia duten jarduerak salatzen dizkieten enplegatuen, zuzendaritzako kideen edo agenteen izenak isilean gordetzeko.

26. ter artikulua aipatzen duen ordezkaria izango da Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari egindako komunikazioetan edo haiei buruzkoa izan daitekeen edozein informazioetan jasotako datuei dagozkien gisa guztietako prozedura administratibo edo judizialean agertuko den pertsona betebeharreko subjektuak berak zerbait argitzea, osatzea edo berrestea ezinbestekotzat jotzen denean.

2. Enplegatuen, zuzendaritzako kideen eta agenteen kontratazioan goi-mailako estandar etikoak bermatzeko politika eta prozedura egokiak ezarriko dituzte behartutako subjektuek, idatziz, eta aplikatuko.

3. Agintari edo funtzionario orok neurri egokiak hartuko ditu komunikazio horiek egiten dituzten betebeharreko subjektuen enplegatuek, zuzendaritzako kideak edo agenteak babesteko edozein mehatxutatik edo aziotatik, eta aplikatzekoak izango dira 65.1 artikuluan ezarritako babes-neurriak. »

Hamazazpi. 33. artikulua 4. apartatua honela geratzen da idatzita:

«4. Arau honek aipatzen duen datuetarako sarbidea mugatuta egongo da 26. ter artikuluan aurreikusitako barne-kontrolako organoetara, horren barnean direla betebeharreko subjektuek eratzten dituzten unitate teknikoak.»

Hemezortzi. Honela idatzita geratzen da 38. artikulua:

«38. artikulua. *Ondasunen merkataritza.*

Ondasunen salerosketa profesionala egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek 3, 17, 18, 19, 21, 24 eta 25. artikuluetan ezarritako betebeharrak izango dituzte kobrantzak edo ordainketak egoiliar ez diren pertsona fisikoek lege honen 34.2 artikuluan aipatzen diren ordainbideak erabiliz eta 10.000 eurotik gorako zenbatekoarekin egiten dituzten transakzioetan, zenbateko hori eragiketa batekoa izan zein elkarren artean loturaren bat dutela diruditen eragiketa baten baino gehiagoren batuketakoa izan; horrek, hala ere, ez ditu kentzen urriaren 29ko 7/2012 Legeak –iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzekoak– 7. artikulua 4. Bat zenbakian eskudiruko ordainketetarako ezarritako mugak.

Arriskuari buruzko analisiaren arabera, transakzio horiek direla-eta lege honetan ezarritako gainerako betebeharratik guztiak edo batzuk luzatu ahalko dira erregelamendu bidez.»

Hemeretzi. Honela idatzita geratzen da 47. artikulua:

«47. artikulua. *Gainbegiratzea eta ikuskatzea.*

1. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak gainbegiratuko du lege honetan ezarritako betebeharrak bete egiten diren, 44. artikuluan babesean izenpetutako hitzarmenetara egokituz finantza-entitateekiko bere jarduketa.

Lege honen 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera salbuespenen bat aplikatu zaien subjektuetara zabaldu ahalko da gainbegiratze-lana, salbuespen horiek gehiegikeriaz erabili ez direla zehaztearren.

Nolanahi ere, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak behar diren jarduketak egin ahalko ditu betebeharreko subjektuak ikuskatzeko, dela banaka, dela haien taldea, esleituta dauzkan eginkizunekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatze aldera. Atzerrian filialak eta sukurtsalak dauzkaten taldeen kasuan, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak gainbegiratu ahalko du matrizeak bere filial eta sukurtsalei aplikatutako politiken eta prozeduren egokitasuna.

2. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboaren ikuskatze-jarduketak eta –hitzarmena dagoen kasuetan– finantza-entitateen gainbegiratze-organoen jarduketak urteko plan orientagarri batean jasoko dira, eta plan hori Kapital Zuritzearen eta Arauhauste Monetarioen Prebentzio Batzordeak onetsi beharko du, baina Komite Iraunkorrak, arrazoiak emanda, erabaki ahalko du ikuskatze-jarduketa horiek ez ezik beste batzuk ere egitea.

Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak eta, hitzarmena dagoen kasuetan, finantza-entitateen gainbegiratze-organoez, urtero eta arrazoituta, aurreko ekitaldiko planean jasota egon eta aurrera eraman ezin izan diren jarduketaz informatuko dute Kapital Zuritzearen eta Arauhauste Monetarioen Prebentzio Batzordea, halakorik badago.

3. Gainbegiratze-lana eta onetsitako urteko planak gainbegiratze-arriskuan oinarritutako ikuspegi batekin egingo dira, eta horren baitan egongo dira gainbegiratze-mota eta gainbegiratze-lanaren zorrotasuna eta maiztasuna.

Betebeharreko entitateen arrisku-profila, ez-betetzeen arriskuak barne, aldizka berrikusiko da; nolanahi ere, kudeaketan eta funtzionamenduan gertakari edo berritasun garrantzitsuak daudenean, berrikusi egin beharko da.

Gainbegiratze-prozesuan, betebeharreko subjektuek egindako arrisku-analisiak berrikusi ahalko dira, bai eta barne-politikak, kontrolak eta prozedurak analisi horren emaitzetara egokitu ere.

4. Betebeharreko subjektuek eta haien enplegatu, zuzendaritzako kide eta agenteek laguntzarik handiena emango diete Batzordeko Zerbitzu Exekutiboko langileei, eta inongo murriztapenik gabe emango diete eskatzen duten informazio edo dokumentazio guztia, horren barnean honako hauek direla: liburuak, kontabilitateko idazpenak, erregistroak, programa informatikoak, euskarri magnetikoko artxiboak, barne-komunikazioak, aktak, deklarazio ofizialak eta ikuskatzearen mendean dauden gaiekin zerikusia duten gainerako guztiak.

5. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak edo 44. artikulua aipatzen dituen gainbegiratze-organoez dagokien ikuskatze-txostena igorriko diote Batzordeko Idazkaritzari, eta azken horrek bidezkoa dena proposatuko dio Batzorde Iraunkorrari. Halaber, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak edo 44. artikuluan aipatzen diren gainbegiratze-organoez errekerimenduak egiteko proposatu ahalko diote Batzorde Iraunkorrari, betebeharreko subjektuak beharrezkotzat jotzen diren neurri zuzentzaileak har ditzan.

6. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboaren eta gainbegiratze-organoen ikuskapen-txostenek froga-balioa izango dute; hori, halere, ez da eragozpena izango interesdunek beren eskubideen edo interesen aldeko frogak aurkezteko.

7. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak betebeharreko subjektuari gehienez ere urtebeteko epean jakinaraziko dizkio ikuskatzearen ondorioak, betebeharreko subjektuak lehenengo informazio-errekerimendua guztiz betetzen duenetik kontaktzen hasita. Epea sei hilabetez luzatu ahalko da, Zerbitzu Exekutiboko



zuzendariak arrazoituta hala erabakita, ikuskapenak zailtasun berezia duenean edo luzapena betebeharreko subjektuari egotzi ahal zaionean.»

Hogei. Honela idatzita geratzen da 48. artikulua:

«48. artikulua. *Lankidetzaraubidea.*

1. Agintari edo funtzionario orok, kapitalak zuritutako edo terrorismoa finantzatutako zantzu edo froga izan daitezkeen egitateak jakiten baditu dela gainbegiratzen diren entitateei egindako ikuskatzeetan dela beste moduren batera, horren berri eman beharko dio Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari. 2. artikulua arabera betebeharreko subjektuak ez diren funtzionario publikoek betebehara ez betetzea diziplina-zehapen bidez zehatuko da, aplikatzekoa zaien berariazko legeriaren arabera eta haiek izan dezaketen erantzukizun penala gorabehera. Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordeak edo haren laguntza-organoek beren eskumenez baliatuta eskatzen duten informazioari dagokionez ere bete beharko da apartatu honetan aipatutako betebehara.

2. Espainiako Bankuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak, Kontabilitaterako eta Kontuen Auditoretzarako Institutuak, lanbide-elkargoak eta Estatuko eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek, kasuan-kasuan, Batzordeko Idazkaritza informatuko dute, arrazoiak emanez, lege honetan ezarritako betebeharren arau-hausteak ikusi uste badituzte beren ikuskatze-edo gainbegiratze-lanean ari direla.

3. Organo judizialek, ofizios nahiz Fiskaltzak eskatuta, Batzordeko Idazkaritzari lekukotasuna igorriko diote, delitu izan gabe ere lege hau betetzen ez delako zantzuak aurkitzen badituzte prozesuan.

4. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak, bere eginkizunak legeria bereziaren peko finantza-entitateen alorrean betetzen dituztenean, behar diren informazio eta laguntza guztiak eskatu ahalgo dizkie Espainiako Bankuari, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari edo Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari, kasuan-kasuan, eginkizun horiek aurrera eramateko.

5. 4. apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak zuzenean eskuratu ahalgo du atzerriarekiko kapital-mugimendu eta transakzio ekonomikoei buruz Espainiako Bankuari eman zaion informazio estatistikoa, halako eragiketei aplikatzekoa den legerian xedatutakoaren arabera. Halaber, entitate kudeatzaileak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak izaera pertsonaleko datuak eta beren eginkizunetan jaso duten informazioa laga beharko dizkiote Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordeari, haren Zerbitzu Exekutiboak eskatuta, legeak esleitzen dizkion eskumenez baliatzen ari dela.»

Hogeita bat. 48. bis artikulua gehitzen da. Honela geratzen da idatzita:

«48. bis artikulua *Nazioarteko lankidetzara.*

1. Batzordeko Idazkaritzak, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak edo 44. artikuluan aipatzen diren gainbegiratze-organoek, beren ekimenez edo alde aurretik eskaria eginda, lankidetzan jardungo dute Europar Batasuneko agintaritzak eskudunekin, lege honetan ezarritako eginkizunak gauzatzeko behar den guztietan, legeak berak esleitzen dizkien ahalmen guztiez baliatuz. Lankidetzara horren esparruan, Gainbegiratze-arloko Europar Agintaritzari behar den informazioa emango zaie kapitalen zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren arloko betebeharrak bete ditzaten.

2. Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako agintaritzak eskudunen kasuan, lankidetzara eta informazio-trukea nazioarteko hitzarmen eta tratatuetan xedatutakoaren baitan egongo da, edo, kasua bada, elkarrekikotasunaren

printzipioaren baitan, bai eta atzerriko agintari horiek Espainiakoentzat ezarrita dauden sekretu profesionaleko betebeharrak berberak izan behar diren ereduaren baitan ere.

3. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak eta Europar Batasuneko estatuetakoa inteligentzia finantzarioko unitateek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 Zuzentarauari jarraituz trukatu behar diren informazioa, 51. artikulutik 57. artikulura ezarritakoaren arabera; zuzentzarau hori sistema finantzarioa kapitalak zuzentzeko edo terrorismoa finantzatzeko erabilera eragozteari buruzkoa da.

4. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak eta Europar Batasunean ez dauden herrialdeetako inteligentzia finantzarioko unitateek Egmont Taldearen printzipioaren arabera edo kasuan kasuko akordio-memorandumean ezarritako baldintzen arabera trukatu behar diren informazioa. Inteligentzia finantzarioko unitateekiko akordio-memorandumak Zerbitzu Exekutiboko zuzendariak izendatu behar dituzte, aurrez Kapital Zuzentzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordeak baimena emanda, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aldeko txostena eduki behar da.

5. Batzordeko Idazkaritzak, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak edo 44. artikuluan aipatzen diren gainbegiratze-organismoek, soilik, agintari lagatzaileak onartzea emandako xedeetarako erabili ahal izango diren informazioa. Informazio hori ez zaie transmititu beste erakunde edo pertsona fisiko eta juridiko batzuei hura zabaldu duten agintari eskudunek berriaz oniritzia eman gabe.

6. Europar Batasuneko beste estatu bateko inteligentzia finantzarioko unitateak eskatuta, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak bidean diren transakzioak etetea ahalmena izango du, baldin eta kapitalak zuzentzeko edo terrorismoa finantzatu izanaren zantzuak badaude, inteligentzia finantzarioko unitate eskatzaileak transakzioak analizatu, susmoa berretsi eta analisiaren emaitzak agintari eskudunei jakinaraz diezazkien. Terrorismoa finantzatu izanaren zantzuak egoteagatik etetea badira, Terrorismoa Finantzatzeko Jardueren Zaintzarako Batzordeko Idazkaritzari jakinaraziko zaio, inteligentzia finantzarioko unitate eskatzailearen alde aurreko baimena dagoenean.

Etetea erabakitzen bada, inteligentzia finantzarioko unitate eskatzailea izango da etenaldiaren erantzulea, eta etenaldia, gehienez ere, hilabetekoa izango da. Epe hori iraganda, amaitu egingo da etenaldia, salbu eta judizialki berresten edo luzatzen bada, Fiskaltzak eskatuta.»

Hogeita bi. 51. artikuluen 1. apartatuko e) letratik g) letrara bitartekoak honela geratzen dira idatzita:

«e) 26.5, 31.2, 44.2 eta 47.5 artikuluetan aipatzen diren eta Batzorde Iraunkorraren errekerimenduz komunikatu diren neurri zuzentzaileak hartzeko betebeharrak ez betetzea eta ez betetzeko asmo argia izatea.

f) Arau-hauste astun bat egitea aurreko bost urtean betebeharreko subjektuari bide administratiboan zeharpen irmo bat ezarri zaionean arau-hauste mota berarengatik.

g) Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak 48. bis.6 artikuluari jarraituz erabakitako etete-neurriak ez betetzea.»

Hogeita hiru. 52. artikuluen 1. apartatuko m) letratik w) letrara bitartekoak honela geratzen dira idatzita:

«m) Barne-kontrolko politika eta prozedura egokiak idatziz onetsi eta haiek aplikatzeko betebeharrak ez betetzea 26. artikuluan xedatutako moduan, horren barnean dela bezeroak onartzei buruzko berriazko politika bat idatziz ez onestea eta ez aplikatzea.

n) Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari betebeharreko subjektuaren ordezkariaren izendapen-proposamena komunikatzeko betebeharrak ez betetzea, edo jarritako eragozpenak edo egindako oharrak aintzat hartzei uko egitea, 26. ter artikuluan ezarritako baldintzetan.

ñ) Barne-kontrolako organo egokiak ezartzeko betebeharrak ez betetzea, horren barnean direla, kasu bada, 26. ter artikuluan aurreikusitako baldintzetan jarduten duten unitate teknikoak.

o) Batzordeko Zerbitzu Exekutiboko ordezkariari eta barne-kontrolako organoari beren eginkizunak betetzeko baliabide material eta teknikoak eta giza baliabideak emateko betebeharrak ez betetzea.

p) Kapitalen zurtzea eta terrorismoaren finantzaketa eragozteko eskuliburu egoki eta gaurkotua onesteko eta Batzordeko Zerbitzu Exekutiboaren eskura jartzeko betebeharrak ez betetzea 26.5 artikuluan ezarritako baldintzetan.

q) Barne-azterketaren betebeharrak ez betetzea 28. artikuluan ezarritako baldintzetan.

r) Langileen prestakuntzari buruzko betebeharrak ez betetzea 29. artikuluan ezarritako baldintzetan.

s) Betebeharpeko subjektuak ez betetzea barne-kontrolako organoek komunikazio bat egin dieten enplegatu, zuzendaritzako kide edo agenteen izenak isilean gordetzeko neurri egokiak hartzeko betebeharrak 30.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

t) Beste herrialde batzuetan kokatuta dauden eta partaidetzaren gehiengoa dagoen sukurtsal eta filialei dagokienez 31. artikuluko neurriak aplikatzeko betebeharrak ez betetzea.

u) Ez betetzea 42. artikuluan ezarritako baldintzen arabera nazioarteko finantza-kontraneurriak edo zehapenak ezartzeko betebeharrak.

v) 43. artikuluan ezarritako betebeharrak, kontu korrante, aurrezki-kontu, balore-kontu eta eperako gordailuen irekitzea edo deuseztatzea deklaratzeari buruzkoa, ez betetzea.

w) 26.5, 31.2, 44.2 eta 47.5 artikuluetan aipatzen diren eta Batzorde Iraunkorraren errekerimenduz komunikatu diren neurri zuzentzaileak hartzeko betebeharrak ez betetzea horretarako asmorik izan gabe.»

Hogeita lau. 52. artikulua 5. apartatua honela geratzen da idatzita:

«5. Lege honen arau-hauste astuna izango da 2015/847 (EB) Erregelamenduaren 4. artikulutik 14. artikulura eta 16. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea; erregelamendu hori Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena da, 2015eko maiatzaren 20koa, funtsen transferentziekin batera doan informazioari buruzkoa, eta indarrrik gabe uzten du 1781/2006 (EE) Erregelamendua.»

Hogeita bost. Honela idatzita geratzen da 56. artikulua:

«56. artikulua. *Zehapenak arau-hauste oso astunak egiteagatik.*

1. Arau-hauste oso astunak egiteagatik, honako zehapen hauek ezarri ahalko dira:

a) Gutxienez ere, 150.000 euroko isuna, eta, gehienez ere, zenbateko hauetatik handiena den kopuruko isuna: betebeharpeko subjektuaren urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 10; eragiketaren eduki ekonomikoaren halako bi; arau-haustetik datozen etekinen zenbatekoaren halako bost, etekin horiek zehaztu daitezkeenean, edo 10.000.000 euro.

b) Kargu-hartze publikoa.

c) Jarduteko baimen administratiboa behar duten subjektuen kasuan, baimen horren aldi baterako etetea edo errebokazioa.

a) letran aurreikusitako zehapena, zeina nolana ere nahitaezkoa izango baita, b) edo c) letretan aurreikusitako batekin batera ezarriko da.

2. Baldin eta zehapena ezarri zaion betebeharreko subjektua enpresa-matrize bat bada edo 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikulua araberako finantza-kontu bateratuak eduki behar dituen enpresa-matrize baten filiala bada, hau izango da ezarri beharreko gehieneko zehapena kalkulatzeko kontuan hartu beharreko guztizko negozio-bolumena: edo guztizko urteko negozio-bolumena, edo kasuan kasuko diru-sarrera mota, kontabilitateari buruz dagozkion zuzentza araberako eta enpresa-matrizearen kudeaketa-organoak onetsia duen eta eskura dagoen azken kontu bateratuaren araberako.

3. Betebeharreko subjektuari arau-hauste oso astunak egiteagatik jar dakioken zehapena jartzeaz gainera, honako zehapen hauek bat edo gehiago jarri ahalko zaizkie administrazio- edo zuzendaritza-kargu bat izanik arau-haustean erantzule direnei:

- a) Horietako bakoitzari, 60.000 euro eta 10.000.000 euro arteko isuna.
- b) Kargutik kanpo uztea eta lege honen peko edozein entitatetan administrazio- edo zuzendaritza-karguetarako gaitasunik gabe uztea, hamar urterako gehienez ere.
- c) Jendaurreko kargu-hartzea.

a) letran aurreikusitako zehapena, zeina nolahi ere nahitaezkoa izango baita, b) edo c) letran aurreikusitako batekin batera aplikatu ahalko da.

4. Kasu guztietan, zehapenak ezartzeaz gainera, arau-hausleari errekerimendu bat egingo zaio, bere jokabidea bertan behera uzteko eta berriro har ez dezan.

5. Jendaurreko kargu-hartzea dakarren zehapena ezartzea behin erabakiz gero zehazten bada zehapen horrek abian den ikerketa bati kalte egin diezaikeela edo merkatu finantzarioen egonkortasuna arriskuan jar dezakeela, honako hauek egin ahalko ditu erabakimena duen agintari eskudunak:

- a) argitaratzea atzeratzea, harik eta atzeratzea justifikatu zuten arrazoiak amaitzen diren arte;
- b) behin betiko erabakitzea zehapena ez dela argitaratuko, finantza-merkatuen egonkortasuna bermatzerik ez dagoenean.»

Hogeita sei. Honela idatzita geratzen da 57. artikulua:

«57. artikulua. *Zehapenak arau-hauste astunak egiteagatik.*

1. Arau-hauste astunak egiteagatik, honako zehapen hauek ezarri ahalko dira:

a) Gutxienez ere, 60.000 euroko isuna, eta, gehienez ere, zenbateko hauek handiena den kopuruko isuna: betebeharreko subjektuaren urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 10; eragiketaren eduki ekonomikoaren zenbatekoa, ehuneko 50 gehituta; arau-haustetik datozen etekinen zenbatekoaren halako hiru, etekin horiek zehaztu daitezkeenean, edo 5.000.000 euro. Urteko negozio-bolumena kalkulatzeko, 56.2 artikuluan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

- b) Kargu-hartze publikoa.
- c) Kargu-hartze pribatua.
- d) Jarduteko baimen administratiboa behar duten subjektuen kasuan, baimen horren aldi baterako etetea.

a) letran aurreikusitako zehapena, zeina nolahi ere nahitaezkoa izango baita, b) letratik d) letrara bitartekoetan aurreikusitako batekin batera ezarriko da.

2. Betebeharreko subjektuari arau-hauste astunak egiteagatik jar dakioken zehapena jartzeaz gainera, honako zehapen hauek ezarri ahalko zaizkie bertan administrazio- edo zuzendaritza-karguak edo kanpoko adituaren eginkizuna bete eta arau-haustean erantzule direnei:

- a) Horietako bakoitzari, gutxienez 3.000 euro eta gehienez 5.000.000 euro bitarteko isuna.

b) Kargu-hartze publikoa.  
c) Kargu-hartze pribatua.  
d) Kargutik kanpo uztea eta lege honen peko edozein entitatetan administrazio-edo zuzendaritza-karguetarako gaitasunik gabe uztea, bost urterako gehienez ere.

a) letran aurreikusitako zehapena, zeina nolana ere nahitaezkoa izango baita, b) letratik d) letrara bitartekoetan aurreikusitako batekin batera ezarriko da.

3. 34. artikuluan ezarritako deklarazio-betebeharra betetzen ez bada, honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Isuna; gutxienez, 600 eurokoa, eta, gehienez, erabilitako ordainketa-bitartekoen balioaren ehuneko 50ekoa.

- b) Kargu-hartze publikoa.  
c) Kargu-hartze pribatua.

a) letran aurreikusitako zehapena, zeina nolana ere nahitaezkoa izango baita, b) edo c) letratan aurreikusitako batekin batera ezarriko da.

4. Kasu guztietan, zehapena ezartzeaz gainera, arau-hausleari errekerimendu bat egingo zaio bere jokabidea bertan behera uzteko eta berriro har ez dezan.

5. Jendaurreko kargu-hartzea dakarren zehapena ezartzea behin erabakiz gero zehazten bada zehapen horrek abian den ikerketa bati kalte egin diezaiokeela edo merkatu finantzarioen egonkortasuna arriskuan jar dezakeela, honako hauek egin ahalko ditu erabakimena duen agintari eskudunak:

a) argitaratzea atzeratzea, harik eta atzeratzea justifikatu zuten arrazoiak amaitzen diren arte;

b) behin betiko erabakitzea zehapena ez dela argitaratuko, finantza-merkatuen egonkortasuna bermatzerik ez dagoenean.»

Hogeita zazpi. Honela idatzita geratzen da 58. artikulua:

«58. artikulua. *Zehapenak arau-hauste arinak egiteagatik.*

Arau-hauste arinak egiteagatik, honako zehapen hauek ezarri ahalko dira:

- a) Kargu-hartze pribatua.  
b) 60.000 eurora arteko isuna.

Zehapen hauekin batera, arau-hausleari errekerimendu bat egingo zaio bere jokabidea bertan behera uzteko eta berriro har ez dezan.»

Hogeita zortzi. Honela idatzita geratzen da 59. artikulua:

«59. artikulua. *Zehapenen mailakatzea.*

1. Zehapenak honako inguruabar hauei erreparatuz mailakatuko dira:

- a) Ez-betetzeak ukitzen dituen eragiketen zenbatekoa.  
b) Arau-haustea ekarri duten omisioen edo egintzen ondorioz lortutako etekinak.  
c) Arau-haustea konpontzeari norberaren ekimenez ekin izana.  
d) Betebeharpeko subjektuari beste zernahi arau-hausterengatik azken bost urteetan bide administratiboan eta lege honi jarraituz ezarritako zehapen irmoak.  
e) Betebeharpeko subjektuak egitateetan eduki duen erantzukizuna edo borondatea.  
f) Arau-haustearen larritasuna eta iraupena.  
g) Ez-betetzeak hirugarrenei eragindako galerak.  
h) Erruztatuaren gaitasun ekonomikoa, zehapena isun bat denean.  
i) Erruztatuak agintari eskudunei ematen dien laguntzaren zenbaterainokoa.

Nolanahi ere, ezarri den zehapena halako moduz mailakatuko da, non arau-haustea egitea ez den arau-hauslearentzat onuragarriago gertatuko hautsitako araua betetzea baino.

2. 56.3, 57.2 eta 58. artikuluetan ezarritakoetatik aplikatu ahal zaien zehapena zehazteko, inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

- a) Egitateetan interesdunak eduki duen erantzukizuna edo borondatea.
- b) Erruztatutako entitatean edo beste batean lege honetan ezarritako betekizunak direla-eta interesdunak izandako jokabidea.
- c) Interesdunak duen ordezkartzaren izaera.
- d) Interesdunaren gaitasun ekonomikoa, zehapena isun bat denean.
- e) Arau-haustea ekarri duten omisioen edo egintzen ondorioz lortutako etekinak.
- f) Ez-betetzeak hirugarrenei eragindako galerak.
- g) Erruztatuak agintari eskudunei emandako laguntzaren zenbaterainokoa.

3. 34. artikuluan ezarritako deklaratzeko betebeharra ez betetzeagatik aplikatzekoa den zehapena zehazteko, honako inguruabar hauek hartuko dira astungarritzat:

- a) Mugimenduaren zenbatekoa nabarmena izatea; nolanahi ere, halakotzat hartuko da deklarazioaren atalasearen bi halako baino gehiago dena.
- b) Ordainketa-bitartekoen jatorria legezkoa dela ez ziurtatzea.
- c) Interesdunak garatutako jardueraren eta mugimenduaren zenbatekoaren artean koherentziarik ez izatea.
- d) Ordainketa-bitartekoak haiek ezkutatze asmo argia erakusten duen toki edo egoera batean aurkitzea.
- e) Deklaratzeko betebeharra ez betetzeagatik interesdunari azken bost urteetan bide administratiboan ezarritako zehapen irmoak.
- f) Egitateetan interesdunak eduki duen borondatearen zenbaterainokoa.»

Hogeita bederatzia. 61. artikuluen 5. eta 6. apartatuak eta 7. apartatu berria honela geratzen dira idatzita:

«5. Bide administratiboan irmoak diren zehapen-ebazpenak betearaztea Batzordeko Idazkaritzari egokituko zaio.

Kargu-hartze publikoaren zehapena, behin bide administratiboan irmoa denean, ebazpenean ezartzen den moduan betearaziko da; nolanahi ere, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* eta Batzordearen webgunean argitaratuko da, eta webgunean bost urtez egongo da ikusgai. Argitaratutako zehapenari auzibidean errekurtsua jarri bazaio, errekurtsuaren izapideen egoerari buruzko informazioa eta haren emaitza argitaratuko dira, atzerapenik gabe.

6. Zehapen-espediterearen ebazpenak ez badu kargu-hartze publikoko zehapen bat ezartzen, 51. eta 52. artikuluetan tipifikatutako arau-hausteengatik bide administratiboan ezarritako zehapen irmoak argitaratuko ditu Batzordeko Idazkaritzak Batzordearen webgunean, 3.a) apartatuan tipifikatutakoak kenduta, eta egindako arau-haustearen mota eta izaera adieraziko du, bai eta egindako arau-hauste bakoitzarengatik ezarritako zehapena edo zehapenak ere, baina arau-haustearen erantzule diren erakundea, pertsona edo pertsonak identifikatu gabe. Informazio hori bost urtez egongo da eskuragarri Batzordearen webgunean.

7. Batzordeko Idazkaritzak kreditu- eta finantza-entitateei ezarri zaizkien zehapen guztien berri emango die Gainbegiratze-arloko Europar Agintaritzei, horren barnean direla zehapenen aurka ezarritako errekurtsuak eta horien emaitza.»

Hogeita hamar. 63. artikulua gehitzen da, eta honela dio:

«63. artikulua. *Arau-hausteen komunikazioa.*

1. Betebeharpeko subjektuetako enplegatu, zuzendaritzako kide eta agenteek, lege honetan jasotako arau-hausteak izan daitezkeen egitate edo egoeren berri baldin badakite, Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari jakinarazi ahalko dizkiete horiek.

2. Komunikazioak idatziz igorriko zaizkio Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari, eta salatutako egitateei buruzko salaketa justifikatzeko bidea ematen duten dokumentu eta informazio guztiak jasoko dituzte. Ekonomiako eta Enpresako ministroaren agindu baten bidez, komunikazio-eredua onetsiko da eta komunikazioak jasotzeko bidearen ezaugarri eta baldintzak ezarriko dira, haien konfidentzialtasuna eta segurtasuna ziurtatze aldera.

3. Erakundearen prestakuntza-programek mekanismo horien berri eman beharko dute.»

Hogeita hamaika. 64. artikulua gehitzen da, eta honela dio:

«64. artikulua. *Komunikazioen tratamendua.*

1. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak zehaztuko du jasotako komunikazioetan oinarrikerik badagoen ala ez dagoen arau-haustea egin dela susmatzeko, 63. artikuluari jarraituz. Susmo txarra egiteko oinarrikerik ez dagoenean edo egitateak edo arau-haustearen erantzule diren pertsonak behar adina zehazten ez direnean, errekerimendua egingo zaio komunikazioa egin duen pertsonari, komunikazioaren edukia argitu dezan, edo hura informazio berriarekin osa dezan, eta gutxienez 15 egun emango zaizkio horretarako. Komunikazioa argitzeko edo informazio berria aurkezteko emandako epea iragan bada eta ezin izan bada zehaztu susmoak oinarria baduela, artxibatu egingo da komunikazioa.

2. Jasotako komunikazioek ez dute froga-baliorik izango, eta ezin izango dira zuzenean gehitu prozedura administratiboan. Baldin eta egotzitako egitateen egiazkotasunari buruzko behar adina zantzu badago eta Administrazioak ez badu egitate horien berri, honako hauek egin ahalko ditu Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak, edo finantza-entitateetako gainbegiratzailleek, legearen 44.2.m) artikuluan jasotako hitzarmenen kasuan:

a) Jasotako informazioa erabili ikuskapen-plan berria zehazteko.

b) Ikerketa-jarduketa gehigarriak egin; halakoak modu independentean egin ahalko dira edo onetsitako urteko ikuskapen-planaren garapenaren testuinguruan planifikatutako gainbegiratze-ekintzetan sartu ahalko dira.

3. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak aurrera eramandako ikuskatze-jarduketan emaitzak Batzordeko Idazkaritzari igorriko zaizkio, eta horrek Batzorde Iraunkorrari aurkeztuko dizkio, erabaki bat har dezan. Egiaztatze-jarduketek agerian jartzen dutenean arau-hauste penal bat egon daitekeela, informazioa Fiskaltzari igorriko zaio, iker dezan.»

Hogeita hamabi. 65. artikulua gehitzen da, eta honela dio:

«65. artikulua. *Pertsonen babesa.*

1. 63. artikulua babesean egindako komunikazioak:

a) ez dira izango kontratu bidez edo edozein lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapen bidez informazioa zabaltzeari buruz ezarritako murriztapenen urratze bat edo ez-betetze bat, nahiz eta murriztapenok komunikatzaileari, harekin estu lotutako pertsonari, administrazio dituen sozietatei edo hura titular erreala den sozietatei eragiten dietenak izan;

b) ez dira izango lan-araudiaren eremuko inongo arau-haustea komunikatzailearentzat, eta ezin izango dute ekarri enplegatzaileak inongo tratu bidegabe edo baztertzailerik ematea;

c) ez diote konpentsaziorako edo kalte-ordaina jasotzeko inongo eskubiderik emango komunikatzaileak zerbitzuak ematen dituen enpresari edo hirugarren bati.

2. Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak informazioa emango du araudi indardunak eskubide horiek bermatzeko gaitzen dituen legezko tresnei buruz.

3. Komunikazioak konfidentzialak izango dira, eta Batzordeko Zerbitzu Exekutiboak ezin izango ditu eman haiek egin dituzten pertsonen identifikazio-datuak. Baldin eta egindako komunikazioaren ondorioz zehapen-espeditente bat hasten bada pertsona fisiko edo juridiko baten aurka, ez dira inolaz ere jasoko komunikazioa egin zuen pertsonaren datuak.

4. Komunikazioa 63. artikulua babesean egiteak ez du berez emango interesdunaren izaera prozedura administratiboan, arau-hauslearen aurka halakorik hasten bada.»

Hogeita hamahiru. Xedapen gehigarri bakarrari honako aldaketa hauek egingo zaizkio:

«Xedapen gehigarri bakarra. *Sozietateentzako edo fideikomisoentzako zerbitzu-emaitzen erregistroa.*

1. Enpresa moduan edo profesional moduan lege honen 2.1.o) artikuluan deskribatutako zerbitzu guztiak edo batzuk ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, beren jarduerak hasi baino lehen, nahitaez izena eman beharko dute beren egoitza dela-eta eskuduna den Merkataritza Erregistroan.

2. Baldin eta enpresaburu diren pertsona fisikoak badira edo pertsona juridikoak badira, edozein motatakoak direla ere, Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera inskribatuko dira, berariaz aplikatzeko den arau bat ez dagoen bitartean. Baldin eta profesionalak diren pertsona fisikoak badira, inskripzioa soilik modu telematikoan egingo da, aurrez ezarritako eta Justiziako ministroaren aginduz onetsitako formulario batean oinarrituta.

3. Pertsona juridikoen kasuan, haiek erregulatzen dituen arauak halakorik ezartzen ez badu, administratzaileen edozein aldaketa, bai eta kontratu sozialaren edozein aldaketa ere, Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.

4. Xedapen gehigarri hau indarrean jartzen den egunean legearen 2.1.o) artikuluko jardueretako bat edo batzuk egiten ari diren pertsona juridikoak, inskribatuta ez badaude, urtebeteko epean inskribatu beharko dira, xedapen gehigarri honen 2. apartatuan xedatutakoari jarraituz. Halaber, Merkataritzako Erregistroan jada inskribaturik dauden pertsona fisiko edo juridikoek, epe berean, erregistro horretan adierazpen bat aurkeztu beharko dute, betebeharreko subjektu diren aldetik lege honetako arauen pean daudela dioena. Pertsona juridikoek, gainera, beren benetako titularren adierazpen bat aurkeztu beharko dute, lege honen 4.2 artikulua b) eta c) letretan zehaztutako moduan. Adierazpen horiek albo-ohar batean jasoko dira eta benetako titulartasun hori aldatzen den bakoitzean eguneratu beharko dira.

5. Sozietateei zerbitzuak ematen dizkieten pertsona fisiko eta juridikoek, beraiei buruzko arauetan ezer xedatzen ez bada, urteko kontuak gordailutu beharko dituzte Merkataritza Erregistroan, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginak –uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak– 279. artikulutik 284. artikulura ezarritako moduan eta ondoreekin. Halaber, Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua aplikatuko zaie, uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsia; zehazki, erregelamenduaren 365. artikulua eta ondorengoak. Urteko kontuen gordailua egiteko betebeharrak horretatik salbuesten dira sozietateei zerbitzuak ematen dizkieten pertsona fisiko profesionalak.



6. 53. artikuluan aipatzen den arau-hauste arina izango da lege honen 2.1.o) artikuluan aipatzen diren jardueretan diharduten pertsona fisiko edo juridikoak ez inskribatzea, eta, pertsona juridikoen kasuan, lege honen pean daudela dioen adierazpenik ez aurkeztea edo benetako titulartasunari buruzko adierazpenik ez egotea. Zehapen-prozedura 61. artikuluan ezarritakoa izango da.

7. Xedapen gehigarri hau aplikatzen zaien pertsona fisiko edo juridikoek, pertsona fisiko profesionalek salbu, ekitaldi bakoitzean, beren urteko kontuak Merkataritza Erregistro eskudunean gordailutzearekin batera, beste dokumentu bat aurkeztu beharko dute gordailutzeko, zeinean honako datu hauek jasoko baitituzte:

- a) Lege honen 2.1.o) artikuluan jasotakoetatik zer zerbitzu mota eman dituzten.
- b) Zer lurralde-eremutan jarduten duten, udalerrria edo udalerrriak eta probintziak aipatuz.
- c) Horrelako zerbitzuak ez-egoiliarrei eman ote dizkieten dena delako ekitaldian.
- d) a) apartatuan zehaztutako zerbitzuengatik dena delako ekitaldian eta aurrekoan zenbat fakturatu duten, baldin eta sozietateei zerbitzua emateko jarduera bakarra eta eskusiboa ez bada. Zenbatestea ezinezkoa bada, berariaz adierazi beharko da hori.
- e) Aipatutako 2.1.o) artikuluan jasotakoetatik zenbat eragiketa egin dituzten, haien mota edo izaera bereiziz. Baldin eta eragiketarik batere egin ez bada, berariaz aipatuko da hori.
- f) Kasua bada, benetako titularra nor den, erregistroan jasota dagoena aldatu bada, 4. apartatuan aipatutakoari jarraituz.

8. Pertsona fisiko profesionalek f) letrako aipamenaren salbuespenarekin gordailutu beharko dute aurreko apartatuan aipatutako dokumentua inskribatuta dauden Merkataritza Erregistroan. Gordailua urte bakoitzaren lehenengo hiru hilabeteetan egingo da, eta soilik modu telematikoa egingo da, Justizia Ministerioaren aginduz aurrez ezarritako formularioari jarraituz. Eredua onesten duen aginduan, beharrezkotzat jotzen diren neurriak ezarriko dira aipatutako komunikazioaren segurtasuna bermatzeko. Dokumentu hori ez gordailutzea arau-hauste arintzat hartuko da lege honen 53. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, eta lege beraren 58. artikuluan ezarritako moduan zehatu ahalko da.

9. Baimena ematen zaio Justizia Ministerioari Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez behar diren agindu, jarraibide edo ebazpenak eman ditzan xedapen gehigarri honetan xedatutakoa garatzeko.»

Hogeita hamalau. Aldatu egiten da apirilaren 28ko 10/2010 Legearen azken xedapenetako laugarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako laugarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Konstituzioaren 149.1. artikuluen 6., 11. eta 13. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da; izan ere, haien bidez esleitzen zaizkio Estatuari merkataritza-legearen arloko eskumenak, kreditua antolatzeko oinarrien arlokoak eta jarduera ekonomikoaren langintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arlokoak, hurrenez hurren.»

## III. TITULUA

**Europar Batasunaren zuzentarauaren transposizioa, honako arlo hauek direla eta: hirugarren herrialdeetako herritarrak sartzeko eta bizilekua izateko baldintzak, ikerketan jarduteko, ikasketak egiteko, praktikak egiteko, boluntario gisa jarduteko, ikasleen truke-programetan edo hezkuntza-programetan parte hartzeko edo au pair gisa jarduteko**

**Hirugarren artikulua.** *Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen aldaketa.*

Aldatu egiten da irailaren 27ko 14/2013 Legea, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzekoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela idatzita geratzen da 72. artikulua:

«72. artikulua. *Prestakuntza, ikerketa, garapena eta berrikuntza.*

1. Espainian sartu nahi duten atzerritarrek, edo egonaldi- eta bizileku-baimenaren titular diren eta erakunde publiko zein pribatuetan prestakuntza, ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak egin nahi dituzten atzerritarrek, honako kasu hauetan, behar den bisa edo prestakuntzarako edo ikerketarako bizileku-baimena eduki beharko dute, zeinak nazioko lurralde osorako balioa izango baitu:

- a) Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 13. artikulua eta lehen xedapen gehigarriak aipatzen dituzten ikertzaileak.
- b) Ikerketa zientifikoko, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko lanak Espainian ezarritako I+G+b arloko enpresa-erakundeetan edo zentroetan egiten dituzten zientzialariak eta teknikariak.
- c) Ikerketa-erakunde publiko edo pribatuen hitzarmen baten esparruaren barruan diharduten ikertzaileak.
- d) Unibertsitateek, goi-mailako hezkuntzako edo ikerketako organo edo zentreek edo Espainian ezarritako negozio-eskolek kontratatatu eta Espainian ezarrita dauden irakasleak.

2. Ikerketarako bizileku-baimenak bi modutakoak izango dira:

a) EBN ikerketan jarduteko bizileku-baimena. Baimen hori emango da artikulua honen lehen apartatuan jasotako atzerritarrak doktoretza baten titularrak badira edo goi-mailako hezkuntzako kualifikazio egokia badute, doktoretza-programetarako sarbidea ematen diena, eta ikerketa-jarduera bat egiteko hautatu baditu ikerketa-entitateak.

62. artikulua baldintza orokorrak betetzeaz gainera, EBN ikerketan jarduteko bizileku-baimenaren eskatzaileak harrera-hitzarmen edo lan-kontratu bat aurkeztu beharko du, zeinak, kasuan kasuko kontratu-modalitatearen berezko baldintzak alde batera utzi gabe, honako elementu hauek jasoko baititu:

- 1.a Ikerketa-jardueraren edo ikerketa-esparruaren izenburua edo xedea.
- 2.a Atzerritarraren konpromisoa, ikerketa-jarduera aurrera eramaten ahalegintzekoa.
- 3.a Ikerketa-entitatearen konpromisoa, atzerritarrari harrera egitekoa, ikerketa-jarduera aurrera eraman dezan.
- 4.a Ikerketa-jarduera hasteko eguna eta amaitzekoa, edo jarduerak ustez iraungo duen denbora.
- 5.a Kasua bada, Europar Batasuneko beste estatu batzuetan ibiltzeko asmoari buruzko informazioa.

Baimen hori eskatzeko orduan, ikertzaileak berariaz onartutako gonbit-gutunak hitzarmen hartu ahalko dira gutxieneko edukia betetzen dutenean.

b) Ikerketa nazionalerako bizileku-baimena. Baimen hori emango da artikuluko honen lehen apartatuan ageri diren eta 2.a) apartatuan jasota ez dauden atzerritarren kasuan.

3. Ikerketarako bizileku-baimen batek bi urterako balioko du, edo harrerako hitzarmenak edo kontratuak irauten duen denborarako, baldin eta hori bi urtekoa baino laburragoa bada. Behin epe hori amaituta, bizileku-baimena berritzeko eskatu ahalko dute bi urteko ondorengo aldiatarako, baldin eta eskubide hori sortu zuten baldintzei eusten bazaie, 76.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

4. EBn ikerketan jarduteko bizileku-baimenak aukera emango du ikerketa-jarduerarekin lotutako eskolak emateko, ikerketan jarduteko ez ezik, baina kasuan kasuko sektore-araudian jasotako berariazko baldintzak bete beharko dira.

5. EBn ikerketan jarduteko eta Espainiak emandako bizileku-baimenaren titularrak estatu kide batean edo batzuetan sartu, bizi eta ikerketan aritu ahalko dira, eta 62.4 artikuluan zehaztutako senitartekoekin egon ahalko dira han, alde aurreko komunikazioa edo eskera eginda –hala badagokio– estatu horietako agintariei beren araudiaren arabera eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 11ko 2016/801 (EB) Zuzentaraua aplikatuta; zuzentarau horrek hirugarren herrialdeetako herritarrak sartzeko eta bizilekua izateko baldintzak ezartzen ditu, ikerketan jarduteko, ikasketak egiteko, praktikak egiteko, boluntario gisa jarduteko, ikasleen truke-programetan edo hezkuntza-programetan parte hartzeko edo *au pair* gisa jarduteko.

6. Europar Batasuneko beste estatu batzuetan kokatutako entitateek, Enpresa Handien eta Kolektibo Estrategikoen Unitateari jakinarazi ondoren, Espainiara lekualdatu ahal izango dituzte estatu horietan eman den eta EBn ikerketan jarduteko den bizileku-baimen baten titular diren atzerritarrak baimen horrek balio duen bitartean, eta haiekin batera familiako kideak joan ahalko dira. Komunikazio hori lehen estatuan baimen-eskaera aurkezten denean egin beharko da, edo, ikertzailea lehen estatu horretan onartu ondoren, mugikortasun-proiektua ezagutu bezain laster.

Komunikazioan, bidaia-agiri baliaduna erantsiko da, bai eta lehen estatu kideak emandako baimen baliaduna ere, zeinak mugitzeko aldirako balioko baitu. Komunikazioak, gainera, honako hauek jasoko ditu:

a) Lehen estatu kidean izenpetutako harrera-hitzarmena edo kontratua, bai eta mugikortasuna dela-eta aurreikusi diren iraupena eta data ere.

b) Ikertzaileak berarentzat eta –hala badagokio– familiako kideentzat aseguru medikoa eta behar adina baliabide ekonomiko dituelako frogara, lege honen 62.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

7. Migrazioen Zuzendaritza Nagusia ikertzaileak lekuz aldatzeko aukera izatearen aurka agertu ahal izango da, horren zergatia emanda, komunikazio osoa jasotzen duenetik 30 eguneko epean, honako kasu hauek:

a) Aurreko apartatuan ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.

b) Aurkeztutako dokumentuak iruzurrez eskuratu badituzte edo faltsututa edo manipulaturik badaude.

c) Beste estatu kidean egoteko baimenaren balio-epea iragan denean.

Migrazioen Zuzendaritza Nagusia aurka agertuz gero, lekualdatutako atzerritarra eta haren familia izapide gehiagorik gabe berriro sartzeko baimena emango du lehen estatuak. Espainiarako lekualdaketa oraindik gertatu ez bada, ukatzeko ebazpenak hura eragotziko du.

8. 14/2011 Legearen II. tituluaren I. kapituluak aipatzen dituen ikerketa-entitateek Enpresa Handien eta Kolektibo Estrategikoen Unitatean inskribatzea

eskatu ahalko dute. Beste ikerketa-entitate batzuek ere eskatu ahalko dute inskripzio hori, Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta berdintasuneko Ministeriooko ministerio-agindu batean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Laneko, Migrazioetako eta Gizarte Segurantzako Ministerioak eta Ekonomiako eta Enpresako Ministerioak ekimena batera aurkeztuta.

Inskripzio horrek 5 urterako balioko du, baina, baldintzei eutsiz gero, berritu ahal izango dute. Baldintzen aldaketa ororen berri eman beharko diote, 30 eguneko epean, Enpresa Handien eta Kolektibo Estrategikoen Unitateari. Aldaketa jakinarazi ezean, ezeztatuko da entitateak unitatean egindako inskripzioa.

Inskribatutako entitateak, eskabidea egiteko unean, ez ditu egiaztatu beharko 62.3 artikulua f) eta g) letretan aurreikusitako baldintzak. Nolanahi ere, Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du baldintza horiek betetzen dituzten, eta, hartarako, entitateak egiaztagiria eduki beharko ditu.

Enpresa Handien eta Kolektibo Estrategikoen Unitatean inskribatuta ere, ikerketan jarduten duten entitateek ez dute aipatu berri dugun salbuespenaren onurarik izango, baldin eta inskripzioaren eskaeraren aurreko hiru urteetan atzeritartasunaren edo immigrazioaren arloko arau-hauste astun edo oso asun batengatik zehapena ezarri bazaie edo Administrazioak ofizioz egindako egiaztapenetan ez badute egiaztatu baldintzak betetzen dituztela.

Inskripzioa erretiratu ahalko da edo hura berritzeko eskaerari ezezkoa eman egoera hauetako edozeinetan:

- a) Ikerketan diharduen entitateak baldintzak betetzeari utzi dionean.
- b) Inskripzioa iruzur eginez lortu denean.
- c) Ikerketan diharduen entitateak iruzur eginez edo zabarkeriaz harrera-hitzarmen bat edo kontratu bat sinatu duenean hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen batekin.

Berritzeko eskaera bati ezezkoa ematen zaionean edo inskripzioa erretiratzen denean, dena delako entitateari hura berriz eskatzeko debekua ezarri ahalko zaio, erretiratzeari edo ez berritzeari buruzko erabakia argitaratzen denetik bost urteko epea iragan baino lehen.

9. Behin ikerketa-jarduera amaituta, atzeritarrak gehienez ere hamabi hilabetez geratu ahalko dira Espainian, egindako ikerketaren esparruarekin zerikusia duen enplegu egoki bat bilatzeko edo enpresa-proiektu bat abian jartzeko.

Horretarako, bizileku-baimenaren indarraldia amaitzeko eguna baino lehenagoko hirurogei egun naturaletan eta bizileku-baimen horren indarraldia amaitu denetik hurrengo laurogeita hamar egunetan, ikertzaileak bide elektronikoz jakinarazi beharko dio Enpresa Handien eta Kolektibo Estrategikoen Unitateari arestian aipatutako xedearekin geratu egin nahi duela.

Enpresa Handien eta Kolektibo Estrategikoen Unitateak ikerketan diharduen entitatearekin egiaztatuko du, baimena luzatu baino lehen, ikerketa-jarduera amaitu egin dela, ikertzaileak gaixotasun-aseguru bat baduela eta mantenurako behar adina baliabide badituela. Azken inguruabar hori egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztuko du, eta hor zehaztuko du zer bitarteko dituen baliabide-nahikotasuna egiaztatzeko.

Luzapen horri buruz ebazteko epea 20 eguneko izango da; horiek iraganda, iritziko zaio onartu egin dela, administrazio-isiltasunez. Enpresa Handien Unitateari komunikazioa eginez gero, prozedura ebatzi arte balioko du aurreko baimenak.

Behin luzapena emanda, eta hark irauten duen bitartean, egindako ikerketaren eremuarekin lotutako enpleguen bat aurkituz gero edo enpresa-proiektu bat abian jarri gero, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan edo irailaren 27ko 14/2013 Legean araututakoetatik dagokion baimena eskatu beharko da.»

Bi. Aldatu egiten da 75. artikulua 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Atal honetan aurreikusitako bizileku-bisak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko martxoaren 25eko 265/2010 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera emango dira; erregelamendu horrek Schengengo Akordioa aplikatzeko Hitzarmena eta 562/2006 (EE) Erregelamendua aldatzen ditu, iraupen luzeko bisak dituzten pertsonen zirkulazioari dagokionez. Bisa horiek urtebeteko iraupena edo bizileku-baimenaren iraupen bera izango dute, azken hori txikiagoa bada, eta titularrak Espainian bizilekua izatea baimenduko dute, atzerriarren nortasun-txartela izapidetu behar izan gabe.»

Hiru. 76. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«76. artikulua. *Baimentze-prozedura.*

1. Atal honetan aurreikusitako bizileku-baimenen izapideak Enpresa Handien eta Kolektibo Estrategikoen Unitateak egingo ditu, bitarteko telematikoak erabiliz; baimen horiek ematea, berriz, Migrazioen Zuzendaritza Nagusiaren esku egongo da.

Ebazteko epea, gehienez, hogeitau eguneko izango da, izapidetzeko eskumena duen organoan eskabidea modu elektronikoan aurkezten denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, baimena administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela iritziko zaio. Ebazpenak arrazoituak izango dira, eta gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da horien aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Atal honetan aurreikusitako bizileku-baimenen eskaerak eskatzailea titularra den bizileku- edo egonaldi-egoeraren indarraldia luzatuko du prozedura ebatzi arte.

2. Behin baimena emanda, baldin eta horrek sei hilabetetik gorako indarraldia badu, atzerriarren nortasun-txartela izapidetzeko eskatu beharko da.

3. Atal honetan araututako baimen baten titular direnek bi urteko aldietarako egin ahal izango dute berritzeko eskaera, baldin eta eskubidea sortu zuten baldintzei eusten badiete, alde batera utzi gabe 67.2 artikuluan ezarritakoa. Berritzeak bide elektronikoak erabiliz izapidetuko dira. Migrazioen Zuzendaritza Nagusiak beharrezko diren txostenak eskatu ahal izango ditu eskubidea sortu zuten baldintzek beren horretan dirauten ebazteko.

Berritzeko eskaera aurkezteak baimenaren balioa luzatuko du prozedura ebatzi arte. Eskabidea aurreko baimena amaitu eta 90 eguneko epean aurkezten badute, orduan ere, luzatuko da haren balioa, baina, hala badagokio, zehapen-espeditetari hasiera eman ahal izango zaio.»

Lau. Hamazazpigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Ikasleek bizileku-baimena eskuratzea enplegua bilatzeko edo enpresa-proiektu bati ekiteko.*

1. Behin goi-mailako hezkuntzako erakunde batean ikasketak amaituta, Europako Kualifikazioen Esparruaren arabera gutxienez ere 6. maila gaindituta –gradu-ziurtagiriari dagokio–, Espainian gehienez ere hamabi hilabeteko epe luzaezin baterako geratu ahalko dira, amaitutako ikasketen mailaren arabera enplegu egoki bat bilatzeko edo enpresa-proiektu bati ekiteko.

2. Horretarako, ikasketetarako egonaldi-baimenaren indarraldia amaitu aurreko hirurogei egun naturaletan eta egonaldi-baimen horren indarraldia amaitu eta hurrengo laurogeita hamar egun naturaletan, ikasleak, baliabide elektronikoak erabiliz, bizileku-baimen bat eskatuko dio biziko den probintzian Espainiako Gobernuak daukan ordezkariari edo azpiordezkariari enplegua bilatzeko edo

enpresa-proiektu bati ekiteko, eta hark soilik egiaztatuko du goi-mailako hezkuntza-titulua edo ziurtagiria edo beste kualifikazio-froga ofizial bat baduela, aseguru medikoa baduela eta mantenurako behar adina baliabide badituela. Azken inguruabar hori egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztuko du, eta hor zehaztuko du zer bitarteko dituen baliabide-nahikotasuna egiaztatzeko.

3. Aurreko apartatuan adierazitako epean eginez gero eskaera, prozedura ebatzi arte balioko du aurreko baimenak. Hala ere, zehapen-prozedura bat abiatu ahal izango da, baimena iraungita egindako arau-haustearengatik.

4. Baimen horri buruz ebazteko epea 20 egunekoa izango da; epe hori iraganda, baimena administrazio-isiltasunez emandakotzat joko da.

5. Enplegua bilatzeko edo enpresa-proiektu bati ekiteko bizileku-baimenak indarra duen bitartean, senideekin egon ahalko da, baldin eta horiek harekin egon badira ikasketak egiteko egonaldiak iraun duen bitartean. Senide horiek geratzeko aukera, nolana ere, lotuta egongo da baimen nagusiaren titularraren egoerarekin.

6. Enplegua bilatzeko edo enpresa-proiektu bati ekiteko bizileku-baimenaren indarraldian, baldin eta amaitutako ikasketen mailarekin lotutako enplegu egoki bat aurkitzen bada edo enpresa-proiektu bati ekiten bazaio, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan edo irailaren 27ko 14/2013 Legean araututakoetatik dagokion baimena eskatu beharko da.»

Bost. Hemezortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Praktikak egiteko bizileku-baimena.*

1. Eskaeraren data baino lehenagoko bi urteetan goi-mailako hezkuntzako titulu bat lortu duten edo Espainian goi-mailako hezkuntzako titulu bat lortzera bideratutako ikasketak egiten ari diren atzerritarrek praktikak egiteko programa batean parte hartu ahalko dute praktiketarako hitzarmen edo lan-kontratu bat sinatuz, profesionalen artean gehiago ikasteko, praktika hobetzeko eta esperientzia handiagoa lortzeko.

2. Horretarako, aurrez, praktikak egiteko egoitza-baimen bat eduki beharko dute, eta, Espainiako lurraldean ez badaude edo bizilekua bertan ez badute, dagokien bisa eduki beharko dute; bisa hori lege honetan deskribatutako prozeduren arabera emango da.

3. Praktikak egiteko egoitza-baimena harrerako entitateak eskatuko du, baliabide elektronikoak erabiliz, eta baimen horrek estatuko lurralde osorako balioko du. Eskaera jarduera garatuko den probintzian Espainiako Gobernuak daukan ordezkariari edo azpiordezkariari zuzendu beharko zaio, eta hark 30 eguneko epean ebatziko du. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, baimena administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela iritziko zaio.

4. Eskatzaileak honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatu beharko du praktikak egiteko egoitza-baimena eskatzeko:

a) Atzerritarra praktikak egiteko onartu dutela harrerako entitate batekin sinatu den praktiketarako hitzarmen baten bitartez; hitzarmen horren arabera, teorikoa eta praktikoa izango da prestakuntza. Praktiketarako hitzarmenak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

1.a Praktiketarako programaren deskribapen bat, tartean direla hezkuntza-helburua edo praktiketako osagaiak.

2.a Praktiken iraupena.

3.a Praktiken baldintzak eta praktika horiek gainbegiratzeko baldintzak.

4.a Praktiketako orduak.

5.a Praktikak egiten ari den pertsonaren eta harrerako entitatearen arteko harreman juridikoa.

b) Atzerritarrak goi-mailako hezkuntzako titulu bat lortu duela eskaera egin aurreko bi urteetan edo goi-mailako hezkuntzako titulu bat lortzera bideratuta dauden ikasketak egiten ari dela.

c) Praktikak goi-mailako hezkuntza titulu horren edo ikasketa-programa horren eremu akademiko berean egiten direla eta kualifikazio-maila berarekin.

d) Espainian bizilekua duen bitartean atzerritarrak gaixotasun-aseguru bat eta behar adina baliabide izango dituela.

e) Atzerritarrak aurrekari penalik ez duela azken bost urteetan bizilekua izan duen herrialdeetan Espainiako ordenamenduan aurreikusitako delituengatik eta ez dela agertzen baztertzeko pertsona gisa Espainiarekin horri buruzko hitzarmena sinatua duten herrialdeetako lurralde-eremuan.

f) Kasua bada, atzerritarra modu erregularrean dagoela Espainiako lurraldean.

5. Atzerritarra praktiketako lan-kontratu baten bidez harrerako entitatearekin lotuta geratzen den kasuetan, ez da aplikatuko enpleguaren egoera nazionala. Kontratu horrek, gutxienez ere, artikuluko hitzarmenerako agintzen duen edukia izan beharko du, praktiketako lanaren erregulazio propioa betetzeaz gain.

6. Praktikak egiteko bizileku-baimen honek sei hilabeterako balioko du, edo praktiketarako hitzarmenak irauten duen denborarako, baldin eta azken hori laburragoa bada. Baimena behin bakarrik berritu ahalko da, eta hasierako baimenak eta haren luzapenak osotara hartzen duten aldia ezingo da urtebetetik gorakoa izan. Baldin eta praktiketako lan-kontratu bat baldin bada, hartan aurreikusitakoa izango da iraupena, eta une bakoitzean aplikatzekoa den lan-arloko legeriaren menpekkoa.

7. Bizileku-baimena xedapen honen arabera lortu duten atzerritarrek atzerritarren nortasun-txartela eskatu ahalko dute.»

Sei. Hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Bizileku-baimenengatiko eta komunikazioak izapidetzeagatiko tasa.*

1. Tasa hau Tasei eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legean ezarritako arau-iturrien arabera arautuko da.

2. Tasaren zerga-egitatea bizileku-baimenak izapidetzea eta ematea, luzatzea, berritzea eta bisatzea izango da, bai eta lege honetan aurreikusten diren komunikazioak izapidetzea ere.

3. Tasa baimena, luzapena, berritzea edo bisatzea eskatzearekin bat sortuko da; komunikazioen kasuan, berriz, halakoak egiten direnean.

4. Subjektu pasiboak baimenak eta haiei dagozkien gainerako jarduketak eskatzen dituztenak izango dira, bai eta komunikazioak egiteko zilegitasuna dutenak ere.

5. Tasaren zenbatekoa ministerio-agindu batez ezarriko da, emandako zerbitzuen kostuari erreparatuta. Tasa ministerio-agindu horretan ezartzen diren arauen arabera kudeatu eta likidatuko da.»

Zazpi. Azken xedapenetako bederatzigarrena aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«V. tituluaren 2. atala eta laugarren, bosgarren, seigarren, zazpigarren, hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak Konstituzioaren 149.1.2 artikulua babesean eman dira, nazionalitatearen, immigrazioaren, atzerritartasunaren eta asilo-eskubidearen arloetan.»

Zortzi. Oraingo azken xedapenetako hamahirugarrena hamalaugarrena izango da aurrerantzean, eta azken xedapenetako hamahirugarren xedapen berria honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako hamahirugarrena. *4/2000 Lege Organikoa aplikatzea, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa.*

Lege honetan aurreikusita ez dagoenerako, 4/2000 Lege Organikoa aplikatuko da, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa.»

**Laugarren artikulua.** *Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzea (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa), 2/2009 Lege Organikoak lege hura erreformatu ondoren.*

Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsia, honela aldatzen da 2/2009 Lege Organikoak lege hura erreformatu ondoren:

Bat. Aldatu egiten da 37. artikulua 3. apartatua; honela geratzen da idatzita:

«3. 40. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, baimena emateko orduan kontuan hartutako jarduerak zenbat irauten duen, beste horrenbeste iraungo du egonaldiak, urtebeteko gehieneko mugarekin; muga hori bi urtekoa izan ahalko da ikasketa-programa goi-mailako hezkuntza-erakunde baimendu batean betetzen denean eta aitortuta dagoen goi-mailako hezkuntza-titulu bat lortzera bideratuta dagoenean; goi-mailako hezkuntza horretarako prestakuntza-ikastaro bat edo nahitaezko prestakuntza-praktika batzuk ere sar daitezke hor.»

Bi. Aldatu egiten da 38. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«38. artikulua. *Egonaldi-bisa edo -baimena lortzeko baldintzak.*

Kapitulu honetan ezarritako egonaldi-bisa edo -baimena lortzeko, honako baldintza orokor hauek betetzen direla ziurtatu beharko da:

1. Oro har, aurreko artikuluan aurreikusitako kasu guztietarako:

a) Bisa-eskaeren kasuan ordezkaritza diplomatikoak edo bulego kontsularrak baloratu beharreko baldintzak eta jada Espainian modu erregularrean dauden atzerritarren alde eskatutako egonaldi-baimenen kasuan Atzerritarren Bulegoak baloratu beharrekoak:

1.a Atzerritarra adingabea baldin bada, eta bere gurasoekin edo tutoreekin ez badator eta 189. artikulua kasuan ez badago, guraso edo tutore horiek baimena eman izana Espainiara joateko dena delako jarduera egiteko; jasota geratu beharko dira jardueraren erantzukizuna duen zentroa, antolakundea, entitatea eta organismoa, bai eta egitekoa den egonaldiaren iraupena ere.

2.a Egonaldi-gastuak eta jatorrizko herrialdera itzultzeko gastuak –bai eta, kasua bada, senideenak ere– ordaintzeko behar adinako baliabide ekonomikoak izatea, honako zenbateko hauen arabera:

Mantenerako, IPREM ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren % 100en adinako zenbatekoa hiler, salbu eta behar den moduan egiaztatzen denean ostatua aurrez ordainduta dagoela egonaldiak iraungo duen denbora osorako.



Ikasleen mugikortasun-programa batean parte hartzen den kasuan, ofizialki aitortutako ikastetxe batean edo zentro zientifiko batean bigarren hezkuntzako edo batxilergoko programa bat segitze aldera, aurreko paragrafoan aurreikusitako zenbatekoa egiaztatu beharrean, kontuan hartuko da mugikortasun-programak aurreikuspen batzuk edukitzea atzerritarren mantenua horren barruan segurtatuta dagoela bermatzen dutenak.

Atzerritarren kargura dauden senideek Espainiako egonaldian behar duten mantenua dela eta, honako hau ezartzen da: lehen seniderako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren % 75en adinako zenbatekoa hilean, eta Espainian familia-unitatea osatuko duten gainerako pertsona bakoitzerako, berriz, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren % 50ekoa, salbu eta ostatu-gastuak egonaldiak irauten duen denbora guztirako ordainduta daudela egiaztatzen denean.

Mantenu hori bermatzearen ondoretarako, ez dira kontuan hartuko, kasua bada, ikasketen kostua, mugikortasun-programaren kostua edo lan-araubidekoak ez diren praktiken kostua ordaintzeko erabilitako edo erabiliko diren zenbatekoak.

3.a Prozeduraren izapidetzeari dagokion tasa ordaindu izana.

4.a Gaixotasun-aseguru publiko bat edukitzea, edo gaixotasun-aseguru pribatu bat, Espainian jarduteko baimenduta dagoen aseguru-etxe batekin itundutakoa.

5.a Egonaldiaren iraupena sei hilabetetik gorakoa denean, honako hauek ere eskatuko dira:

2005eko Nazioarteko Osasun Erregelamenduan xedatutakoari jarraituz osasun publikoan ondorio larriak izan ditzaketen gaixotasunak ez edukitzea.

Adin penala gairatzen duten eskatzaileen kasuan, aurrekari penalik ez edukitzea azken bost urteetan bizi izandako herrialdeetan Espainiako ordenamendu juridikoan delitu diren egintzengatik.

b) Atzerritarren Bulegoak baloratu beharreko baldintza: adin penala gairatzen duten eskatzaileen kasuan eta sei hilabetetik gorako egonaldietarako, Espainian azken bost urteetan aurrekari penalik ez izatea.

2. Aurreko apartatuan ezarritako baldintza orokorrean gainera, aurreikusitako egonaldi-kasu bakoitzerako, berariazko baldintza hauek bete beharko dira, zeinak Atzerritarren Bulegoak baloratuko baititu:

a) Ikasketak egitea edo haietan sakontzea: Espainian baimendutako ikastetxe batean onartua izatea titulu bat edo ikasketen ziurtagiri bat lortzera bideratuta dagoen aldi osoko programa bat segitzeko.

b) Ikerketa- edo prestakuntza-jarduerak egitea: Espainian ofizialki aitortutako zentro batean onartua izatea jarduera horiek egiteko. Ikerketa-jardueren kasuan, zentro hori unibertsitate bat, Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorenaren zentro bat edo I+Gko beste erakunde publiko edo pribatu bat izango da.

c) Ikasleen mugikortasun-programa batean parte hartzea, bigarren hezkuntzako edo/eta batxilergoko programa bat segitzeko ofizialki aitortutako ikastetxe edo zentro zientifiko batean:

1.a Ofizialki aitortutako bigarren hezkuntzako edo/eta batxilergoko ikastetxe edo zentro zientifiko batean onartua izatea.

2.a Ikasleen mugikortasun-programak aurrera eramateko ofizialki aitortutako erakunde baten mugikortasun-programa batean parte hartzeko onartua izatea.

3.a Ikasleen mugikortasunaz arduratzen den antolakundeak ikaslearen erantzukizuna hartzea egonaldiak irauten duen bitartean; bereziki, ikasketen kostuari dagokionez eta egonaldiaren eta herrialdera itzultzeko gastuei dagokienez.

4.a Familia batek edo erakunde batek harrera egitea egonaldian, arau ezarritako baldintzetan. Familia edo erakunde hori ikasleen mugikortasun-programaren erantzukizuna duen antolakundeak aurrez hautatua izango da.

d) Lan-araubidekoak ez diren praktikak egitea organismo edo entitate publiko edo pribatu batekin sinatutako hitzarmen baten esparruan: ordainsaririk gabeko praktikak egiteko onartu izana, hitzarmen bat sinatuta, enpresa publiko edo pribatu batean edo ofizialki aitortutako lanbide-heziketako ikastetxe batean.

e) Boluntario-zerbitzu bat ematea:

1.a Boluntario-programa batez arduratzen den antolakunde batekin sinatutako hitzarmena aurkeztea; hartan, honako hauek jasoko dira: jardueren eta haiek aurrera eramateko baldintzen deskribapen bat, bete beharreko ordutegia, eta egonaldiak irauten duen bitartean bidaia, mantenua eta ostatua ordaintzeko baliabideak.

2.a Antolakundeak bere jardueretarako erantzukizun zibileko aseguru bat izenpetu izana. Baldintza hori ez zaie eskatuko Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzen duten boluntarioei.»

Hiru. Honela geratzen da idatzita 39. artikulua:

«39. artikulua. *Prozedura.*

1. Bisaren eskaera pertsonalki edo ordezkari baten bitartez aurkeztu beharko da atzerriarra bizi den herrialdeko Espainiaren ordezkari diploma diplomatikoan edo bulego kontsularrean, eredu ofizialari jarraituz.

2. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Indarrean den pasaportea edo bidaia-titulua, Espainian balioduntzat hartutakoa; eskatzen den egonaldiak irauten duen bitartean balioko du, gutxienez ere.

b) Aurreko artikuluko baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa, eskaerak oinarri duen kasu zehatzaren arabera.

Hori ezertan eragotzi gabe, Administrazioak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileak Espainian aurrekari penalik ez duela.

3. Bulego kontsularrak, baliabide elektronikoak erabiliz, egonaldi-baimenari buruz gobernu eskudunaren ordezkariak edo azpiordezkaritzak emandako ebazpena eskatuko du.

Gobernuak jarduera hasi behar deneko probintzian duen ordezkariak edo azpiordezkaritzak izango da eskuduna.

Egonaldirako baimenari buruzko ebazpena eman baino lehen, Gobernuaren ordezkariak edo azpiordezkaritzak polizia-txostena eskatuko du, eta haren edukia bere erabakiaren esparruan aztertuko du.

Baimenari buruz ebazteko epea zazpi egunekoa izango da gehienez, eskaera jasotzen denetik hasita; epe hori erantzunik jaso gabe iraganez gero, eskaera baietsi dela ulertuko da.

4. Egonaldi-baimenari buruzko ebazpena aurkakoa bada, ordezkariak diploma diplomatikoak edo bulego kontsularrak interesdunari jakinarazpen bat bidaliko dio ebazpena zein izan den azaltzeko, eta dokumentu berean, idatziz, adieraziko dio ebazpen haren aurka zer errekurtsio administratibo eta judizial aurkez ditzakeen, haiek zer organori aurkeztu behar dizkion eta horretarako zer epe dituen. Halaber, ordezkariak diploma diplomatikoak edo bulego kontsularrak bisari buruzko prozedura artxibatzea ebatziko du.

5. Egonaldi-baimena emanez gero, ordezkariak diploma diplomatikoak edo bulego kontsularrak bisari buruz ebatzi eta eman egingo du, hala badagokio. Baimendutako egonaldiak iraun bitartean balioko du bisak, atzerriarren nortasun-txartela ematea dagokion kasuetan izan ezik.

6. Bisa, emanez gero, atzerriarrak berak jaso beharko du, jakinarazi eta bi hilabeteko epean. Aipatutako epean jasotzen ez badu, iritziko zaio interesdunak uko egin diola emandako bisari, eta prozedura artxibatu egingo da.

7. 37.1.a) artikulua kasuan, ikasketetarako egonaldi-baimenaren eskaera atzerritarrak berak aurkeztu ahalko du, ordezkari baten bitartez edo horretarako baliabide telematikoak erabiliz, eredu ofizialari jarraituz, jarduera hasi behar den probintzian Gobernuak daukan ordezkartzan edo azpiordezkartzan, baldin eta Espainiako lurraldean modu erregularrean badago eta eskaera gutxienez ere bere egoera amaitu baino hilabete lehenago aurkezten badu. Kasu horietan, Gobernuaren ordezkartza edo azpiordezkartza arduratuko da eskaerarekin batera doazen dokumentuak baloratzeaz, ebazpena emateaz eta ebazpen hura hilabeteko epean gehienez interesdunari jakinarazteaz.

8. Aurrekoa alde batera utzi gabe, atzerritarrak ikasketak zer erakundetan egingo dituen, erakunde horrek aurkeztu ahalko du goi-mailako hezkuntza-programak segitzeko egonaldi-baimenen eskaera, eta, eskaerarekin batera, eskatzen diren dokumentuak ere aurkeztu beharko ditu. Gobernuaren kasuan kasuko ordezkartzak edo azpiordezkartzak baloratuko ditu. Ebazpena eman eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da gehienez. Baimena lortu ondoren, ikasleak dagokion bisa lortu beharko du, baldin eta Espainiako lurraldetik kanpo badago.

Jokabide egokien kode bat izenpetzen duten goi-mailako irakaskuntza-erakundeek baimen horien izapidetze kolektiboa eskatu ahalko dute; izapidetze hori goi-mailako hezkuntza-erakunde horiek aurkeztutako baimenen aldi baterako kupo baten kudeaketa planifikatuan oinarrituko da. Halakoetan, ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea 15 egunekoa izango da.

9. Egonaldirako bisa edo baimena honako egoera hauetan ukatuko dira:

- a) Eskatzaileak azken bost urteetan bizilekua izandako herrialdeetan aurrekari penalak dauzkanean Espainiako ordenamendu juridikoan delitu diren egintzengatik.
- b) Eskaera oinarritzeko, dokumentu faltsuak edo zehatzak ez diren alegazioak aurkeztu direnean, edo tartean fede txarra dagoenean.
- c) Eskaera jasotzean ikusi gabeko eta legez izapidea ez onartzeko lkausa bat dagoenean.

10. Egonaldia sei hilabetetik gorakoa bada, atzerritarrak, Espainian egiazki sartu denetik hilabeteko epean, atzerritarren nortasun-txartela eskatu beharko du.»

Lau. Aldatu egiten da 44. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«44. artikulua. *Europar Batasunaren barruko mugikortasuna.*

1. Goi-mailako hezkuntza-programak segitzeko Espainian emandako egonaldi-baimen baliodun bat duten ikasleek, baldin eta Batasuneko programa batean edo programa aldeaniztun batean parte hartzen badute zeinean mugikortasun-neurriak jasotzen diren, edo goi-mailako bi irakaskuntza-erakunderen edo gehiagoren arteko akordio batez babestuta badaude, eskubidea izango dute estatu kide batean edo batzuetan sartu eta egoteko beren ikasketen zati bat goi-mailako irakaskuntza-erakunde batean egiteko; horretarako, aurrez, komunikazio bat igorri beharko diete estatu horietako agintariei, 2016/801 (EB) Zuzentaraua aplikatzeko kasuan kasuko araudiaren arabera, eta estatu kide bakoitzean 360 egun bitarte egon ahalko dira.

2. 2016/801 (EB) Zuzentarauaren arabera beste estatu kide batek emandako baimen balioduna duten ikasleek, baldin eta Batasuneko programa batean edo programa aldeaniztun batean parte hartzen badute zeinean mugikortasun-neurriak jasotzen diren, edo goi-mailako bi irakaskuntza-erakunderen edo gehiagoren arteko akordio batez babestuta badaude, Espainian sartu eta egoteko eskubidea izango dute 360 egun bitarteko aldi baterako, beren ikasketen zati bat Espainiako goi-mailako hezkuntza-erakunde batean egiteko; horretarako, aurrez komunikazioa igorri beharko diete jarduera hasi behar duten probintzian Gobernuak duen ordezkartzari edo azpiordezkartzari.

Komunikazioa Espainiako lurraldean sartu aurreko edozein unetan egingo da, eta, beranduenez, sartu ondotik hilabeteko epean; Espainiako goi-hezkuntzako

erakundeak egingo du, aurreikusitako iraupena eta mugikortasunaren datak adierazita.

Komunikazioan, bidaia-agiri balioduna jasoko da, bai eta lehen estatu kideak emandako baimen balioduna ere, zeinak mugikortasun-aldi osoa hartuko baitu. Komunikazioan, gainera, frogatu beharko da, batetik, ikaslea ikasketak Batasunaren programa baten edo programa aldeaniztun baten esparruan egiten ari dela eta programan mugikortasun-neurriak hartzen direla, edo goi-hezkuntzako bi erakunderen edo gehiagoren arteko akordio baten esparruan egiten ari dela ikasketak, eta, bestetik, ikaslea Espainiako goi-hezkuntzako erakunde batek onartu duela.

Gobernuaren dena delako ordezkartzak edo azpiordezkartzak, ikaslearen mugitzeko askatasuna dela-eta, eragozpenak aurkeztu ahalko ditu, komunikazioa jasotzen denetik 30 eguneko epean, honako kasu hauetan:

- a) Apartatu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.
- b) Aurkeztutako dokumentuak iruzur eginez eskuratu direnean edo faltsutu edo manipulatu direnean, edo baimen-eskariei ezezkoa emateko arrazoi bat aplikatzekoa denean.
- c) Apartatu honetan aipatzen den egonaldirako gehieneko epea iragan denean.

Mugitzeko askatasunaren kontra agertuz gero, ikasleari ez zaio baimenik emango bere ikasketen zati bat Espainiako goi-irakaskuntzako erakunde egiteko, eta lehen estatuak bertara itzultzeko baimena emango dio lekualdatutako atzerritar horri, hark izapide gehiagorik egin gabe. Espainiarako lekualdaketa oraindik gertatu ez bada, ukatzeko ebazpenak eragotziko du hura.

3. Europar Batasuneko beste estatu batean ikasketak egiteko edo haietan sakontzeko onartu diren ikasle atzerritarrek, baldin eta ez badaude sarturik mugikortasun-neurriak biltzen dituen Batasunaren programa batean edo programa aldeaniztun batean, edo goi-irakaskuntzako bi erakunderen edo gehiagoren arteko akordio batean, baimen bat eskatu ahalko dute Espainian sartzeko eta bertan geratzeko, beren ikasketen zati bat goi-mailako irakaskuntza-erakunde batean egiteko edo osatzeko, eta ez zaie eskatuko bisa lortzeko.

Eskaera Espainiako lurraldean sartu aurreko edozein unetan aurkeztu ahalko da, eta, beranduenez, Espainian sartu eta hilabeteko epean.

Irakaskuntza-zentroa kokaturik dagoen probintziari dagokion Atzerritarren Bulegoari zuzenduta aurkeztuko da, Europar Batasunean bizilekua izandako azken tokiari dagokion Espainiaren bulego kontsularrean edo Atzerritarren Bulegoan bertan.

Eskaerari honako dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

- a) Europar Batasuneko beste estatu batean ikasle gisa onartua dutelako ziurtagiria.
- b) 38. artikulua 1. eta 2.a) apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen direlako ziurtagiria.

Atzerritarren Bulegoak eskaera izapidetuko du eta ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko du.

Baimena emanez gero, ebazpena jakinarazi eta gehienez ere hiru hilabeteko epean sartu beharko du atzerritarrek Espainian, ordurako Espainiako lurraldean ez badago.

Sei hilabetetik gorako iraupena duten egonaldi-baimenen kasuan, atzerritarrek berak atzerritarren nortasun-txartela eskatu beharko du dena delako Atzerritarren Bulegoan edo polizia-etxean, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean edo, kasua bada, Espainian sartu eta hilabeteko epean.»

## IV. TITULUA

### **Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzko uztailaren 4ko 19/2003 Legea aldatzea**

**Bosgarren artikulua.** *Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzko uztailaren 4ko 19/2003 Legea aldatzea.*

Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzko uztailaren 4ko 19/2003 Legearen 12. artikulua 3. apartatua honela idatzita geratzen da:

«3. Lege honetan jasotako arau-hausteak zehatzeko prozedura zehapen-ahalmena erabiltzeko oro har ezarrita dagoena izango da. Prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea, gehienez, urtebetekoa izango da, prozedura hasteko erabakiaren egunetik kontatzen hasita; halere, instrukzio-epaileak epearen kontaketa eten dezake Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 22. artikuluan aipatzen dituen kasuetan.

## V. TITULUA

### **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzea**

**Seigarren artikulua.** *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrena, eta honela idatzita geratzen da:

«Azken xedapenetako zazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta urtebetera jarriko da indarrean.

Hala ere, ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, enplegatu publiko gaituen erregistroari, Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenek 2020ko urriaren 2tik aurrera izango dituzte ondorioak.»

**Xedapen iragankor bakarra.** *Joko-operadoreen arreta egokia.*

Errege lege-dekretu hau indarrean sartzeko denetik, joko-operadoreek arreta egokiari buruz aurretik zeuden betebeharrak bakarrik beteko dituzte hiru hilabetez.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Zehazki, indarrak gabe uzten da Atzerriarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzeritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 38. bis artikulua; bai eta 4/2000 Lege horren erregelamenduaren IV. tituluaren IV. kapituluaren 2/2009 Lege Organikoaren 4/2000 Lege Organikoa aldatu ondoren; erregelamenduaren 73. artikulutik 84. artikulura bitartekoak, alegia; erregelamendua apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

**Azken xedapenetako lehena.** *Europar Batasunaren Zuzenbidea txertatzea.*

Errege lege-dekretu honen bitartez honako zuzentarau hauek txertatzen dira Espainiako Zuzenbidean:

2014/50/EB zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2014ko apirilaren 16koa. Zuzentarau horrek gutxienezko baldintzak ezartzen ditu langileek estatu kideen artean mugitzeko duten askatasuna areagotzeko pentsio-eskubide osagarriak hobeto eskuratuz eta hobeto atxikiz.

2015/849 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2015eko maiatzaren 20koa. Zuzentarau hori sistema finantzarioa kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko erabilera eragozteari buruzkoa da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen du, eta indarrak gabe uzten ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentaraua eta Batzordearen 2006/70/EE Zuzentaraua.

2016/801 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko maiatzaren 11koa. Hirugarren herrialdeetako herritarrak sartzeko eta bizilekua izateko baldintzak ezartzen ditu, ikerketan jarduteko, ikasketak egiteko, praktikak egiteko, boluntario gisa jarduteko, ikasleen truke-programetan edo hezkuntza-programetan parte hartzeko edo *au pair* gisa jarduteko.

**Azken xedapenetako bigarrena.** *Eskumen-titulua.*

Lehenengo artikulua merkataritza-legeriaren arloan Estatuari modu eskusiboan dagokion eskumenaren babesean ematen da; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan ezarrita dago.

Errege lege-dekretu honen bigarren eta bosgarren artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 6., 11. eta 13. zenbakietan xedatutakoaren babesean eman dira; zenbaki horietan, merkataritzako legeriaren gaineko eskumenak, kreditua antolatzeke oinarrien gainekoak eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gainekoak esleitzen zaizkio Espainiako Estatuari.

Errege lege-dekretu honen hirugarren eta laugarren artikulua Estatuari immigrazioaren eta atzerriartasunaren gaietan dagozkion eskumen eskusiboek baliatuta eman dira; eskumen horiek Konstituzioaren 149.1.2 artikuluan ezarrita daude.

Errege lege-dekretu honen seigarren artikulua Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan xedatutakoaren babesean eman da, zeinak Estatuari eskumena esleitzen baitio administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak emateko eta orobat eskumena esleitzen baitio administrazio-prozedura erkidearen gaian.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** *Zenbait erregelamendu-xedapenen mailaren babesa.*

Errege lege-dekretu honek aldatzen dituen erregelamenduetako xedapenak aldatu ahal izango dira haiek dauden arauaren maila bereko arauen bitartez.

**Azken xedapenetako laugarrena.** *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernuari ahalmena ematen zaio errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

**Azken xedapenetako bosgarrena.** *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Madriren, 2018ko abuztuaren 31n.

FELIPE e.

Gobernuko jarduneko presidentea,  
CARMEN CALVO POYATO